GERNIKA-LUMO 2004. URTEA

Hirugarren Koadernoa

Idazlan

DBH eta BATXILERGOA

GERNIKA-LUMO

HIRUGARREN IDAZLAN KOADERNOA

2004

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

Argitaratzailea:

• Gernika-Lumoko Hezkuntza Arloa.

Laguntzaileak:

• Barrutialde Institutua.
• Gernika-Lumoko Institutua.
• La Merced Ikastetxea.
• San Fidel Ikastola.
• Seber Altube Ikastola.
• HHI Gernika-Lumo.

Portadaren egileak:

• Barrutialde Institutuko DBH4. mailako ikasleak

Babesleak:

• Gernika-Lumoko Udaleko Hezkuntza Arloa.
• Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
• Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza).

Maketazioa eta Inprimaketa:

• GRAFICAS AMOREBIETA.

2004ko edizioa.

HITZAURREA

Aurreko urteetan LIK eta BIK, eta aurten, 2004, HIK (“Hirugarren idazlan koadernoa”).

Horixe da Gernika-Lumoko ikasleek, LH-koek eta DBH-koek, hartu daben bidea, Udal Eskola Kontseiluaren koordinazioarekin eta eskoletako irakasle arduratsuen zuzendaritzapean, idazmena eta irakurzaletasuna lantzea helburu.

Eskolan ikasitakoaz ikaslea jabetzen bada, ikasitakoaren emoitzak aditzera emoteko euskarriak erraztea beste batzuei jagoku. Herria, familia, lagunartea eta esparru guztietan ikasleen gaitasunaz jabetzeko ahalegina egin behar dogu; gure ikasle sasoian ezin genduana egin gaur egun zelan loratzen dan konturatzea beharrezkoa da guztiontzat, hiztun gaztetxoek “askatasunean” sortzen dabena euskerearen etorkizunaren termometroa dalako.

Kontakizun bitxiz beteriko altxor hau dastatzeko lana bete dozuen idazleoi eta ardura izan dozuen irakasle neketsuoi, eskerrak bihotzez.

Marina Abadia Arraibi
Hezkuntza Arloko Zinegotzia

AURKIBIDEA

“Etxe misteriotsua”	Jon Boyra Lopez	(DBH 1. Maila)	6
“Ginikoren bizitza Europa Parkean”	Aroa Basterretxea Etxebarria	(DBH 1. Maila)	9
“Zer naiz ni, nor naiz ni?”	Gontzal Uriarte Torreladai	(DBH 1. Maila)	12
“Bildurra armairuan”	Amaia Izarzuaga Gonzalez	(DBH 1. Maila)	15
“Hugo detektibea”	Jon Urtubi	(DBH 2. Maila)	18
“Hirian barrena”	Haitz Bernedo Calvo	(DBH 2. Maila)	21
“Amonaren amodioa”	Maite Mugira	(DBH 2. Maila)	24
“Kalabazak eta bihotzaren taupadak”	Lukene Endeiza Lopez	(DBH 2. Maila)	27
“Eskutitza”	Alejandra Loizaga Aboitiz	(DBH 2. Maila)	30
“Erramuren urriko azken astelehena”	Pello Bilbao Lopez de Armentia	(DBH 2. Maila)	33
“Ezkutuko hiltzailea”	Leire Zabaleta Izagirre	(DBH 3. Maila)	36
“Euripean”	Mikel Agirre Alonso	(DBH 3. Maila)	39
“Bizitza ala infernua?	Nerea Bilbao	(DBH 4. Maila)	45
“Gau batean”	Pablo Martinez Juarez	(DBH 4. Maila)	49
“Lara”	Amaia Quintana	(DBH 4 maila)	52
“Bizitzaren istorioak”	Xabier Amurrio	(DBH 4. Maila)	58

“Hegoak imajinatzen”	Arantza Kareaga Diaz	(DBH 4. Maila)	61
“Amets eginez soilik”	Ariane Ensunza Aldamizetxebarria	(DBH 4. Maila)	63
“Pipa baten historia”	Ibone Manzano	(DBH 4. Maila)	66
“Nire erruz”	Estibaliz Erlega Alonso	(DBH 4. Maila)	69
“Amaierarik gabeko erepidea”	Hodei Ensunza Aldamizetxebarria	(BT. 2. maila)	72-74
“Zein atsegina den”			
“Gerra”	Kepa Ojanguren Sagastizabal	(BT 2. Maila)	75-78
“Destinuaren kapritxoak”			
“Harri berean bi bider estropozu”	Aitziber Erkiaga	(BT 2. Maila)	83
“Heriotzaren aurpegia”	Gorka Alzola Arrien	(BT 2.maila)	88
“Oroitzapenetan goxo-goxo”	Elixabet Alegria	(BT 2. Maila)	92
“Bizirik iraun”	Iñaki Ereño	(BT 2. Maila)	96
“Norabide barik ezerezean”	Olatz Olasolo Goikoetxea	(BT 2. Maila)	100
“Beste egun bat”	Miren Gotzone Uresandi	(BT 2. Maila)	104
“Mari Errauskinaren ipuina”	Mª Pilar Basteguieta	(HHI-ko ikaslea)	107
“Motxila lepoan, lurra hainketan”	Maria Onaindia Kareaga	(HHI-ko ikaslea)	109

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta



Jon Boyra Lopez - DBH. 1. Maila

"Saski baloian, JO TA KE, eta Euskal Herria bihotzez maite."

ETXE MISTERIOTSUA

Orain dela urte batzuk, Lizarrako herrian, 15 urteko lagun taldetxoa bizi zen. Beti aritzen ziren abenturak eta misteriozko gauzak bilatzen. Elkartzeko lekutzat zuhaitz altuz eta belardiz osaturiko basoa zuten.

Lagun taldea bost pertsonaz osatuta zegoen: Unai, Ane, Aitor, Ainhoa eta Jone. Oso ondo konpontzen ziren elkarrekin.

Larunbat goiza zen. Denak batu ziren, basoan. Eta espiritismoa egitea erabaki zuten. Horretarako, leku berezia behar zuten: lur-sail laua, zuhaitz handiz inguraturikoa eta horrez gain, hainbat motatako landareak eta loreak. Ibili eta ibili ondoren, leku egokia aurkitu zuten. Dena prestatzen ari ziren: intsentsua zeukan ontzi handia eta, noski, kontzentrazioa. Hura bai zela beharrezkoa! Borobila osotuz, jesarrita zeudenean, Aneren ahotik honelako berbak entzuten ziren:

-Umm! Umm!... Gehien kostatzen zitzaiena kontzentrazioa lortzea baitzen, espirituekin komunikatzeko edota berba egiteko. Isilean zeuden bitartean, ikaragarrizko soinua entzun zuten.

gráficas amorebieta

-Hori, zer izango ote da?-galdetu zuen Unaiek.

-Ez dakit zer izan daitekeen baina... beldurgarria dela dirudi -zihoan Anek. Denak altxatu zirenean, oinez hasi ziren.

Bost minutu pasa ondoren, etxe zahar, misteriotsu, ilun... bat ikusi zuten.

-Hori bai zela beldurgarria!

Igor, buru makur, pentsatzen zegoen bitartean zera esan zuen:

-Etxe barruan, isiltasun gehiago edukiko dugu, hau da, espiritismoa praktikatzeko oso leku egokia izan daiteke. Ez da? Denak baietz erantzun zuten, eta noski, ez zeukaten beldurrik. Beraz, oso urduri eta pozik zeuden etxe misteriotsu horretan zer egongo zen ikusteko.

-TOK - TOK! Atea jo eta jo egin arren, inork ez zuen aterik iditzen. Orduan, barrura sartu eta bat-batean atea ezezik, irekita zeuden leihoak ere, zarratu egin ziren.

-BAHHHH –berdin da – esan zuen Jonek. Egon lasai! Zelan edo halan irtengo gara eta!

Hiru solairuko etxea zen. Hautsez beterik zegoen. Eskailerak igo zituzten eta ate guztiak zabaldu. Etxea utzik zegoen. Bertan ez zegoen inor. Orduan, espiritismo saioari haziera emanez, lanean hasi ziren. Intsentsuko ontzia erdian jarri eta.

gráficas amorebieta

-UMM, UMM, UMM...Bat batean, espirituak hurbildu eta eurekin berbetan hazi ziren, honako hau esanez:

-Ez dugu etxe hau hain ondo ezagutzen baina... ez garela hemen gauden bakarrak uste dut eta bi segundo igaro ondoren, zarata bat entzun zuten:
-Ahhh!-Zer izango ote da? – galdetu zuen Aitorrek.
Zutik jarri eta etxea berrikusi egin zuten.

-Badago norbait? – galdetzen zuen Ainhoak.

Bat-batean gizon altu, handi, mozkor eta motz bat agertu egin zitzaien. Korrikan, sukaldean ezkutatu egin ziren. Ainhoak, erratza hartu zuen. Aitorrek, ostera, ahizkora. Baina, gizon madarikatua sukalderaino etorri zitzaigun. Orduan, zer egin?-Aitorrek, eskuetan zeukan labana, ahotik sartuz, aktoan lurrera jausi egin zen. Odola dariola egon arren esan zien:

-Kontuz ni ez naiz etxe honetan bizi naizen pertsona bakarra, ez!
Eta isildu egin zen.

-Dardarka zeuden ez zutelako irtenbiderik. Hotsik ez zenez entzuten, lasaitzen zihoazen bitartean, lo geratu ziren, oso nekatuta zeuden eta. Etxekoek, aldiz, oso kezkatuta zeuden euren seme-alabak ez zetozelako. Orduan, gurasoek elkartuta ertzainengana jo zuten. Ertzainak, berehala basorantz abiatu ziren, beste batzuk herritik zebiltzan bitartean. Gau guztia, umeak bilatzen egon arren, ez zituzten aurkitzen. Egunsentia heldu zen. Ohetik jaiki eta etxe hartatik irteteko bidea topatu beharra zeukaten. Den-dena itxita zegoen eta!

-Zer egingo dugu?

-Ez dakit. -Gosez amorratzen nago –esan zuen Unaiek.

Handik aste batera, ertzainek basoan etzanda bilatu zituzten. Aurkitu bezain laster, ospitalera eraman zituzten. Ospitalea, jendez beterik zegoen. Minutu bi pasatuz gero, ADN-ren frogak egin zizkieten hiltzailea nor izan zitekeen jakiteko. Guztia frogatu zutenez aske utzi zituzten ADN-k ezer ez zuelako ziurtarazi.

Azkenean, nor izango ote zen hiltzaile misteriotsua?¿?¿?¿?¿?¿?¿?¿?¿?¿?¿?

gráficas amorebieta

Aroa Basterretxea Etxebarria - DBH. 1. Maila

"Europa parkian bi lore bildu artian, etorri jaten txoritxo bat zuhaitzak zerbait behar zuela esan ta zerbait esan zuen zuhaitzak zuhaitz pollit-pollitak"

GINIKOREN BIZITZA EUROPA PARKEAN

Nire istoriotxo bat kontatuko dizuet jarraian. Ez sinestu arren arbola bat naiz eta Giniko Bilolla dut izena. Jendeak Ginkgo biloba deitzen didate, baina nire gurasoek izen hau jarri zidaten nirelako beste arbola motekin ez nahasteko.

Ongi dakizuenez, arbolek hainbat urte bizi daitezke eta nik 72 urte izan arren oraindik gaztea naiz.

Nire espeziea hain zaharra da, batzutan "bizidun fosilak" izenarekin deitzen baitigute. Gure hosto fosilik zaharrena orain dela 270 milioi urte aurkitu zen, orduan mundu osoan zehar geunden banatuak: Europa, Amerika, Asia... eta dinosauruekin elkar bizi ginen. Urte asko ez ziren igaro eta zoritxar handi bat gertatu zen, dinosauruak desagertzea eragin zuela eta guri ere bai min egin ziguten; gure haziak gehienbat dinosauruak sakabanatzen zituztelako. Beraien desagertzeak gurea ere bai eragin zuen eta 11 familiatatik bat bakarrik geratu zen bizirik.

gráficas amorebieta

Denak uste zuten betirako hil egin ginela. Baina ez, toki isolatu batzuetan bizirik irteteko gai izan ginen. Eta milioika urte igaro ondoren oraindik Txinan geunden, batez ere monje budistak zaintzen gintuzten mendietan gure haziak sakabanatzen 1100 k.a urtean.

Nire gurasoak ez ditut hainbeste ikusten baina 100 metroko distantziara dagoen ertz batean kokatzen naiz, gehienetan neguan ikusten ditut.

Behin nire aiton-amonak kontatu zidaten gertaera bat kontatuko dizuet nik ipuin honetan: Nola etorri ginen Txinatik hona, Gernikara.

Bazen gizon oso aberats bat Allende Salazar izenekoa eta XVII Mendean bizi zena Gernikako etxe batetan, orain “Euskal Herriko Museoa” kokatzen den tokian, Andra Mari Eliza dagoen alboan hain zuzen. Gizon honi oraindik Euskal Herrira etorri ez diren gauzak ekartzea gustatzen zitzaion, horrexegatik askotan ez zen egoten bere etxean, Txinan, Ameriketan...etab.-en zegoelako.

Egun batean, nire aitona eta amona ikusi zituen, eta Euskal Herrian ez zegoenez, bere lorategira eramatea pentsatu zuen. Lorategi handi horretan nire gurasoak jaio ziren, eta azkenik ni. Zoritxarrez nire aiton-amonak laster hil ziren. Eta lehen esan dizudan bezala nire gurasoak bizi diren tokitik urrunago bizi naiz ni.

Nik hainbat urtetan gauza asko ikusi ditut:

Behin oso txarto pasatu nuen, uste dut gerra bat izan zela. Gernika osoa suntsitu zuten baina eraikin batzuk salbatu ziren. Hala nola gizon aberatsaren, Allende Salazar-en jauregia. Jende eta zuhaitz asko hil ziren, nire aiton-amonak adibidez.

Gerra gertatu ondoren, Ikastolak eraiki zituzten, bat nigandik hurbil zegoen. Ikastola hau egonda, nire albotik jende asko pasatzen zen, umeak, hauen gurasoak, txakurrak...etab. Hainbeste jende ikusita oso ondo bizi nintzen, haien poztasuna, negarra, zarata... hau zen ni alaitzen ninduena.

Egun batean gizon bati parke bat egitea bururatu zitzaion eta Allende Salazar-en lorategia hain handia zenez, eremu bat saldu zioten. Etxe horrekin museo bat egina zeukaten baina lorategiko parte batek hor jarraitzen du oraindik. Parke hori egitean nire gurasoak nigandik gehiago banandu zituzten. Gurasoak lorategian eta ni parkean. Oso gogorra izan zen, bakarrik sentitzen nintzen. Baina hala ere arbola gehiago zeuden nire alboan: Haritzak, Pagoak, Pinuak, Goroldioak, Eukaliptuak... Haiekin hitz egiten nuen, barre jolastu eta hainbat gauza. Gainera baneukan lagun bat oso altua zena; hain garaia zen, ezen eguraldiaren berri emateko gai baitzen. Arbola hau zen nire lagunik onena, oso barregarria eta atsegina.

Lehen esan dizuedan bezala, goizetan eta arratsaldetan jende asko pasatzen zen nire albotik, baina behin eta berriz pasatzen zena ama bat zen bere umearekin. Umea Ikastolan utzi bezain

gráficas amorebieta

laster nire alboan dagoen jesarleku baten jesartzen zen eta niri hitz egiten hasten zen, oso gauza politak esaten zizkidan, gustatuko litzaidake berba egitea, horrela berarekin hitz egiteko. Batzuetan jesarri besterik egiten zen eta niri begiratzen gelditzen zen. Baina gehien gustatzen zitzaidana, bere umea Ikastolatik etortzen zenean zen. Beti hartzen zidan hosto bat, umeak usindu egiten zuen eta gero etxera joaten ziren.

Parkea egiten hasi zirenean, arbola pila bota zituzten, baita nire lagunak ere, hala ere, baten bat ez zuten bota.

Nik langileen hitzak entzuten nituen eta ni botatzea nahi izan zuten, baina egun horretan betiko ama agertu zen eta langileari ni oso arbola garrantzitsua nintzela esan zion, baita ekologistak salatu ahal ziotela.

Orain parkea oso polita dago, niretzako lagun asko ekarri dituzte, zuhaitzak, zuhaiskak, landareak, loreak eta baita umeak ere. Ume asko Ikastola amaitu ostean parkera etortzen dira jolastera.

Nire gurasoak oso pozik begiratzen didate aberatsaren lorategitik orain museo bat kokatzen den lekutik, zelan hazten naizen.



Istorio hau egiazko gertaeretan oinarrituta dago.

Ginkgo Biloba (Giniko Bilolla) urte askotan bizi izan zen ertz horretan. Baina norbaitek parkeko beste toki baten nahi izan zuen birlandatu eta denbora bat pasatu ondoren hil egin zen. Bere gurasoak gaur egun Euskal Herriko museoan den lorategian jarraitzen dute

gráficas amorebieta



Gontzal Uriarte Torrealdai - DBH. 1. Maila

"Mendiko bizikletan ibiltzea gustatzen zait."

ZER NAIZ NI, NOR NAIZ NI?

Zenbakientzako buru ona daukat, baina beste ezertarako ez dut balio. Egunero pentsatzen dut zertarako jaio nintzen, zertarako balio dudan, nik ez dakit eta inork ez dit esaten. Nik egiten dudan gauza bakarra, geldi egotea da eta noizean behin euren atzamarrek nire gorputza behin eta berriz ukitzen dute. Uste dut mundu osoan bakarra naizela, ez dudalako nire moduko beste inor ikusi. Zaharra naiz, laurogei urte ditut eta ez naiz egon urte guzti hauetan atzamar batzuekin, hiru atzamar mota pasatu ditut.

Bizia eman zidana da lehenengoa, Julen izenekoa, berak onda tratatzen ninduen. Ez ninduen asko ukitzen eta ni alde batetik pozik nengoen, baina beste alde batetik ez, zeren beti nengoen kaxoi batean sartuta. Ez nekien ze eguraldi zegoen, zenbat egun pasatu ziren, begiak ireki eta ez nuen ezer ikusten, ezer ez ikustean urduri jartzen nintzen eta horregatik egun gehienak begiak itxita ematen nituen. Pentsatzen nuen nire bizi osoa horrela izango zela, baina egun batean argia ikusi nuen eta berriro nuen esperantza. Hartu ninduen, erabili ere bai eta gero mahai gainean utzi, eguzkiak aurpegian jotzen ninduela. Mahai gainean egunak ematen nituen eta egun triste batean norbaitek aho zikin batean sartu ninduen. Arnasa oso txarra eta hagin zorrotz-zorrotzak zeuzkan. Kale kantoi batera eraman ninduen eta han bere haginekin nire gorputza zulatuta utzi zuen, hiltzeko zorian nengoen.

Halako batean mutil gazte batek ikusi ninduen eta nire gorputzeko zulo guztiak sendatzen hasi zen. Baina alferrik zen, ez nintzen sendatzen eta horregatik mutil hark bere etxera eraman ninduen. Lau egun pasatu ziren eta oraindik ez nintzen ondo aurkitzen, baina pixkanaka-

pixkanaka hobetzen joan nintzen. Ondo jarri nintzenean, bere atzamarrekin nire gorputza ukitzen hasi zen eta egun bat bera ere ez zuen pasatzen ni ukitu gabe.Oso gaizki sentitzen nintzen, horrela bizi baino nahiago nuen kale kantoi hartan hil.

Zoritzarrez konturatu nintzen lehengo etxe berdinean nengoela, baina oraingoan mutil gazte batekin. Nire buruari behin eta berriz galdetu nion nor demontre zen mutil hura, baina alferrik zen. Jadanik aste bete pasatu zen eta aste osoan zehar ez ninduen ukitu, oso arraroa zen, zeren lehen beti pasatzen zituen bere atzamar handiak nire gainetik. Ez nekien non zegoen, ezta zer gertatu zitzaion, pentsatzen hasia nintzen bere buruaz beste egingo zuela, baina oso arraroa zen hori gertatzea ,oso pozik bizi baitzen eta gainera ez zuen etsairik. Nik ezin nuen ezer egin, ez baitut mugitzeko gaitasunik eta oso triste jartzen nintzen hori pentsatzean. Askotan ukitu ninduen, baina bizia salbatu zidanez, nik ezin nion ukatu nire laguntasuna. Lagundu nahi nion, ez nekien non zegoen, baina laguntza behar zuela iruditzen zitzaidanez, zerbait egitea pentsatu nuen.

Bi egun geroago oraindik ez nekien zer egin eta errenditu egin nintzen. Mutil hura ez nuen gehiago ikusi, oraindik ez dakit hilik edo bizirik dagoen, espero dut bizitzaz gozatzen egongo dela, ez nire moduan, libre bizi beharrean, beste batzuen menpe. Nik ez dakit zer den askatasuna, beti egon bainaiz norbaiten menpe, esklabu baten moduan.

Oraindik han nengoen, etxe mada-rikatu hartan eta inork ez zidan kasurik egiten, aspertuta nengoen bakarrik egoteaz. Nik nire lako beste bat nahi nuen, berarekin bizi, familia bat osatu eta denok elkarrekin oso pozik bizi. Baina oso gaitza zen nire ametsa betetzea, ez nuelako beste inor ezagutzen, bakarrik nire gainetik zeudenak ezagutzen nituen. Ordurarte gizon bat eta mutil bat ezagutzen nituen, eta biak ziren etxe berdinekoak.

Euren etxeko leihoan jarraitzen nuen bakarrik eta triste. Norbaitek ikusi eta hartuko ninduen esperantzarekin, baina ez nekien noiz arte iraungo zidan esperantza horrek. Leiho aurretik emakume bat pasatu zen, begiratu ninduen, baina aurrerantz jarraitu zuen; geroago neskatxa batek ahalegin guztiak egin zituen ni hartzeko, baina alferrik, leihoa altuegi zegoen. Denbora asko neraman leihoan eta jende oso gutxi pasatu zen, hiru edo lau pertsona gehienez, eta batek ere ez ninduen hartu; oso triste nengoen, negar egiteko ez zitzaidan asko falta.

Azkenean neska gazte bat pasatu zen leiho aurretik et niri begira geratu zen, denbora asko eman zuen horrela eta azkenean hartu egin ninduen, oso pozik jarri nintzen. Poltsa batean sartu eta bide luze bat egin nuen iluntasunean, oso urduri, baina aldi berean oso pozik. Ez nekien nora nindoan, ezta zer gertatuko zitzaidan poltsa hartatik irten eta gero, baina berdin zitzaidan, oso pozik nengoen eta bizitzeko gogoarekin.

Halako batean poltsatik atera ninduen eta bere baserri handi eta polita ikusi nuen. Bakarrik bizi zen, bere hogeitabi urterekin. Lehenengo egunetan, denen moduan, oso ondo tratatzen ninduen, baina gero hasi zen nire gorputza ukitzen eta besteek baino txarrago tratatzen ninduen. Lurraren kontra botatzen ninduen hirugarren pisutik beheraino eta hori gutxi balitz uretan sartzen ninduen. Neska honekin ezin nuen gehiago, baina nik ezin nuen ezer egin, zeren nora joango nintzen mugitzeko gaitasunik gabe. Bere atzamarrak ez zituen nire gainetik pasatzen,

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

baina bai jotzen ninduen. Bere konpontzeko era ezen normala, nik pentsatzen nuen zoratuta zegoela eta pentsatu bakarrik ez, egia zen.

Nire gorputzeko atalak apurtzen hasi zen, zatika-zatika eta apurka--apurka. Bat-batean, eskerrak telefonoak jo zuela, zeren telefonoa hartu bezain laster, etxetik aldegin zuen; batek daki nora,baina eskerrak telefono dei horri oraindik bizirik nago. Handik hiru ordura heldu zen etxera poz-pozik eta poltsa askorekin, poltsa haietan diru mordoa zekarren. Telebista piztu zuen eta banku bateko lapurretari buruz hitz egiten zeuden. Ni seguru nengoen nire alboan zegoen neska zela lapurra, baina nik ezin nuen frogatu.

Geroago ni sendatzen hasi zen eta harrituta nengoen, lehen apurtzen eta orain sendatzen, nik ezin nuen sinetsi, baina seguruenik pentsatuko zuen nik zortea ematen niola eta horregatik jarrera hori. Bi egun beranduago, berdin gertatu zen, telefono dei bat, jarraian kalera eta handik bi ordura berriz poltsaz beterik eta diruz gainezka. Nirekin oso jarrera ona zuen eta pozez kantari ibiltzen zen hara eta hona. Astean bi edo hiru lapurreta egiten zituen, beretzat jolas bat zen, zeren dirua sobran zeukan eta nirekin oso ondo konpontzen zen, baina nik ezin nintzen bere laguna izan, jende asko eta asko bere erruz ezer gabe geratu baitzen.

Etxe hartatik ihes egin nahi nuen, baina ez nekien nola. Egunak eman nituen pentsatzen, baina ezinezkoa zen ni etxe hartatik joatea, zeren norbaitek hartu behar ninduen eta nengoen lekuan inork ez ninduen ikusten.. Neskak etxe aurrean utzi behar ninduen norbaitek hartzeko.Nik keinu batzuk egiten nizkion etxe aurrera eramateko, baina ez ninduen ulertzen. Nire begiak kanpora begira jartzen nituen, baina alferrik, ahaleginak egiten nituen eta egunak pasatu ahala zerbait aurreratzen nuen, zeren azkenean etxe aurrean nengoen eta egunak asteak bezala pasatzen zitzaizkidan, luzeak eta aspergarriak.

Eguraldi ederra zegoen egun batean, mutil txiki batek hartu ninduen eta niri begira geratu zen. Alboetara begiratu zuen eta inor ez ikustean poltsiko baten sartu ninduen eta korrika aldegin zuen. Etxe handi-handi batera eraman ninduen, poltsikoko zulotxo batetik dena ikusten nuen, ehundaka ume zeuden, emakumeak eta gizonak ere bazeuden, baina ez asko. Zorionez nire moduko asko ikusi nituen eta pozaren pozez negarrez hasi nintzen. Azkenean zoriona eta familia bat osatzeko aukera paregabea! Mutil horrek beste nire moduko bat zuen, bera eta ni ezagutu ginen eta familia bat osatu genuen, azkenean nire ametsa bete zen.

Laurogei urte ditut, lau seme--alaba eta bederatzi iloba. Julenekin bizi zen mutil gazte hura non dagoen jakitea da daukadan amets bakarra. Ezin diot bizitzari ezer gehiago eskatu, kalkulagailu zahar bat besterik ez bainaiz.

gráficas amorebieta



Amaia Izarzugaza Gonzalez - DBH. 1. Maila

"Aurrera zoaz ala atzera zoaz? Aski da txo! esan ozenki:
EUSKALDUNA NAIZ ETA HARRO NAGO!!"

BILDURRA ARMAIRUAN

Aberatsa nintzen, ondasunak ugariak ziren gure etxean, animaliak, lursailak,...Gure baserriko maizterrak zoriontsuak izango ziren ene aitaren ondasunen hamarrenarekin, are gehiago urte osorako errenta ordaintzeko eta familia osoa elikatzeko beste izanez gero.Bekaiztu egiten nituen, baserritar zikin eta eskolagabe haiek, nire ustetan zoriontasuna ez delako ondasun materialetan aurkitzen. Ez nuen ondasun haietan gehiegi pentsatzen, askotan gorrotatu ere egiten nituen, eta ez zen aitaren heriotzaren orduan izango ez nituelako, etxeko maiorazgoa ni neu bainintzen.

Beti pentsatu izan dut besteekiko desberdina nintzela, gure garaiko mutikoekin alderatuz berezia agian. Nire anaia txikiak ni baino indartsuagoak ziren eta guztiz kupidagabeak. Zein baino zein gehiago ibiltzen ziren beti, batak harri bat altxatu ezkero, besteak handiagoa altxatu behar...Ia mendi gailurrean zegoen Mendigune baserriaz arduratzen nintzen gehienbat, eta ezinezkoa zitzaidan bertakoei gaizki tratatzea edota mehatxuka ibiltzea, jende noblea zen, ez diruz edo tituluz noblea baizik eta bihotzez. Ni ere harritzen nintzen sarri askotan hori sentitzeaz, jauntxo harroputza izateko jaio bainintzen, baina hura nere bigarren familia zen, bigarrena...ez. Ez nuen faltsukeria hartan bizitzen jarraitu nahi, nik ez nuen familiarik beraz, Gabikatarrak ziren ene sendi bakarra. Haiekin nuen harreman eskasa estutzea erabaki nuen, ez nekien ordea nola egin...

gráficas amorebieta

Bizi izan ditudan urte hauetan ez gara jaun bakarraren maizter izan, eta eskerrak ematen dizkiot ene jainko jaunari. Mutiko jatorra zen hau, munstro baten seme izateko, jatorregia eta askotan nabaritzen nuen gugana hurbiltzeko zuen gogoa. Aitari hura komentatzerakoan, txorakeriak baino ez zirela erran zidan, jauntxo eta baserritarren artean dagoen harreman bakarra interesezkoa zela bakarrik, ez nuela horietaz fidatu behar, gaur gauza bat esaten duten lekuan, biharkoan...batek daki! Aitaren esanetan dirudun hauei gerraren egoeraren arabera aldatzen ei zitzaien humorea.

Gabon gaua laster zetorrela pentsatu nuen eta huraxe primerako aukera izango zela Gabikatarrenean gaua pasatzeko, izan ere etxean ezinegoneko giroa sortuko litzateke urteroko legez eta aitzaki merke bat jarriz, aitarengatik urrundu eta nekazari familiari proposamena egin nien. Azkar asko onartu zuten nire proposamena, pixkat harrituta, hala ere primerako gaua pasatu genuen, hortik aurrera gauza asko aldatuko ziren....

Kaxiano jaunak gonbidapena egin bezain laster, harriduraz hartu genuen denok baina harridura baino gehiago beldurra zuen amak eta berehala eman zion baiezkoa. Aitaren musua ikusi bezain laster jakin nuen ez zuela gonbidapen haren susmo onik hartzen. Ez nuen jarrera hori ulertzen, Kaxiano ez nuen besteak bezala ikusten eta aberastasuna eta apaltasuna uztartzea ez zela ezinezkoa ulertu nuen. Gau hura liluragarria izan zen, beste edozein senitarteko bat iruditu zitzaidan eta sua piztu zen nire bihotzean.

Gero ta gehiago etortzen hasi zen Jauna, dudarik gabe maitasun falta zuela nabaritu nion, maite zuen sendi bat, maiteko zuen norbait...

Aitak zoritxarrez ez zuen horrela ikusten eta berarekin harremana estutzen hasi nintzenean ez zuen begi onez ikusi, baina nola esan Mendigune baserriko ugazabari gure familiatik aldentzeko? Bekatu mortala izango litzateke, berari esker ditugulako hego-ekialdera orientatuta dauden harrizko lau horma eder hauek. Hori zen nuen abantaila bakarra.

Begirunea sentitzen hasi nintzen,Gabika familiarengatik, eta konprenitu nuen beraien eta nire arteko ezberdintasun bakarra diruan oinarritzen zela,beraiek bezala konportatu eta jazteko gogoa nuen beraietako bat izan, baina ezinezkoa zen.Txikitatik independientea izaten ikasi banuen ere, nere aitak maizterrekin erlazionatzen nintzela jabetuko bazen, nire maiorazgoa arriskuan zegoen, ez zitzaidan larregi axola maiorazgoak, baizik eta Mendigune baserriak, honek eta Inaxiok.

Behin Kaxiano Jaunarekin hizketan nenbilela, ene jaunak eskua eman zidan zerbait eskertzeko asmoarekin, baina nik ez nuen bakarrik zentzu horretan sentitu, orduan ohartu nintzen hori eta geroago eman zidan besarkadak beste zerbait adierazi nahiko bazuen moduan, , udaraneko haize fin harek aurpegia kilikatuko banindu bezala oso hurbil sentitzen nuen bere aurpegia, bere ezpainak, eta bere begirada ez betikoa, begirada sakona izan zen hura, hitz egiteko gai zena.

gráficas amorebieta

Maite nuen mutiko gazte hura, ez familiako kide gisa, beste era batean...orduan nahasita nengoen, ohitura sustraitua zen beste sexuko norbaitekin maitemintzea, ez zen nere kasua. Arestian burua argitu zitzaidan, bere barnean sentitu nintzen gure ahoak bat eginik zirela; muxu gozo-gazia.

Iritsi zen momentua, eta gure sentimenduei buruz berba egitea otu zitzaidan, zerbait arraroa zegoen guzti hartan, biok genekien arazoa.

Luzaroan berriketan egon ondoren geure maitasuna aitortu genuen eta lehen aldiz ez nintzen tipo bitxi baten legez ikusi.

Herri txiki batean berehala sortzen dira espekulazioak eta aita jakinaren gainean egoteak kezkatzen ninduen. Larregi ziren herrian Inaxiorekin ikusten ninduten nonzerberriak eta berehalakoa izan zen..... Gau hartan sutan zegoen aitatzat nuen deabru hura, gau iluna izan zen neretzat astinaldi hura ez dut sekula santan ahantziko. Kanpoan eguzkiak argitu arren ez zen egunik neretzat, irten ezineko zulo batean barneraturik. Jaun nazkagarri hark Ameriketara bota ninduen, heriotzetik ozta-ozta libratu ondoren, baina nire barnea ez zen inoiz osatu.

Ez nuen gehiago mutiko dotore haren berririk izan, eztakit zergatik nire bizitzatik goizeko ilargia bezala aldendu zen. Inork herrian ez zuen haren desagerpenaren txintik ere esan, ezer ez zekitelako-edo. Halako iluntze batetan aitak baserri hartan jarraitzeaz zori handia genuela esan eta oheratu egin zen. Ez nion ulertu, baina garai ilunak hastera zihoazen...

Orain urrun nago, nire berririk gabe zaudelakoan gutun hau idaztera noakizu, noizbait heltzen bazaizu, izan zaidazu bihotzean:

Iluntzean ezagutu ginen izarrekin dantzatu genuen, ilargiak babestu gintuen zu eta ni...

gráficas amorebieta



Jon Urtubi - DBH. 2. Maila

“ Ezin dezakegu esan euskara maite dugunik, ondoren, lagun artean erderaz mintzatzen bagara”.

HUGO DETEKTIBEA

Hemen nago, nire bulegoko lau pareta hauen artean. Hugo naiz. Hugo detektibea. Kasu garrantzitsu bat noiz helduko zain nago. Aspaldi honetan denbora gehiago ematen dut antzinako kasuak gogoratzen lanean baino. Agian beste zerbaitetan lan egiten hasi beharko dudala pentsatzen hasia naiz.

Eserlekutik erdi etzanda, loak hartzeko unean nagoenean, pausu sendo batzuk entzuten ditut nire aurrean emakume eder bat agertzen denean.

- Hugo? Hugo detektibea?

- Bai, neu naiz (eserlekutik erortzeko zorian). Zer behar duzu andereño?

Emakumea arnasestuka dator. Begietan negarra dauka eta ez dirudi lo asko eginda dagoenik. Oso emakume liraina da. Aparteko dotorezia duten horietakoa.

- Nire izena Ainhoa Palacios da. Agian entzungo zenuten zerbait komunikabideetan Nire senarra Francisco Domingo enpresaria da. Bart, etxean senarra eta biok geundela zarata batzuk

gráficas amorebieta

entzun eta egongelarantz jaitsi ginen. Eskaileratatik beherantz gindoazela, aurpegia estalita zekarren gizon batekin topo egin genuen eta hitzik esan gabe senarrari bularrean tiro egin zion. Anbulantziari deitu nion baina heldu zirenerako nire senarra hilda zegoen.

- Bai, telebistan entzun dut horren berri. Baina dakidanez polizia ikertzen ari da eta badirudi zioa lapurreta izan dela, ezta?

- Bai, hori diote. Balio handiko bi koadro eraman ditu, baina ni ez nago bertsio horrekin konforme.Zergatik igo zituen eskailerak egongelako koadroak hartu eta joateko aukera bazuen?

- Agian bitxiak lapurtu nahi izango zituen.

- Agian, baina nik zalantza asko ditut. Zergatik egin zion tiro bakarrik senarrari?

- Ez dakit…

- Horixe da zuk ikertzea nahi dudana. Hiltzailea nor den argitu arte ezin izango naiz etxe horretara bueltatu. Hemen duzu diru pixka bat (esan zidan diru paper mordoa nire mahai gainean
uzten zuen bitartean). Hiltzailea aurkitzen baduzu, beste horrenbeste emango dizut.

- Lasai zaitez emakumea, neuk aurkituko dut zure senarraren hiltzailea. Zein da zure etxeko helbidea?

- Fakultate kaleko 17. zenbakia

Eta horrela hasi zen inoiz esku artean izan dudan kasurik interesgarrienetariko bat.

Poltsikoa bero nuenez taxia hartu nuen. Fakultate kaleko 17. zenbakira eramateko esan nion taxistari. Irratia piztuta zeukan eta hilketari buruzko datuak ematen ari zen. Poliziak ez zuela kasuari buruzko datu argirik zioen.

Bat batean, nor ikusi beharko eta antzina nirekin lan egiten zuen detektiberik harroena, Erik ikusi nuen. Izena ahoskatze hutsak tripak mugiarazten zizkidan. Hurbildu eta esan nion:

- Zer? Zu ere hemendik?

- Bai! Eta zu? Zer egiten du hemen munduko detektiberik baldarrena? Kasu hau larregi da zuretzat. Zoaz etxera eta ez alferrik galdu denborarik!

Agurrik esan gabe etxera sartu nintzen eta begi bistatik galdu nuen. Eskaileratarantz abiatu nintzen pista esanguratsuren bat aurkitzekotan eta bertan aurkitu nuen gorpuaren arrastoa. Logelara igo nintzen.

gráficas amorebieta

- Fiuuuu! Zelako etxea duen jende honek! (atera zitzaidan habitazio hura ikusi nuenean)

Zerbait aurkitzen hasi eta hara!!! Mesanotxeren tiradora zabaldu eta Ainoha eta Eriken argazki batekin aurkitu nintzen aurrez aurre. Elkar musukatzen ari zirela ikusi nuenerako, odola izoztu zitzaidan. Nola izan zitekeen? Honen arabera Ainhoa eta Erik maitaleak ziren. Hamabost minutu pentsatzen egon ondoren zera bururatu zitzaidan: honek dena lotzen zuen, Ainhoa eta Erik maitaleak zirenez, Francisco desagertarazi behar zuten. Baina nola zitekeen poliziak argazki hau aurkitu ez izatea? Norbaitek ipini behar izan zuen poliziak gela hau arakatu ondoren. Beno, berdin zen. Erik salatu behar nuen. Txerri alena!

Poliziaren zentralera joan nintzen eta nagusiarekin egon eta esku artean nuen froga erakutsi ondoren Erik atxilotu zuten. Baina non zegoen Ainhoa? Nora joan ote zen? Ez genuen bere arrastorik aurkitu.

Hurrengo egunean nire bulegora bueltatu nintzenerako, mahai gainean kartazal bat neukan. Bertan, Ainhoak agindutako dirua zegoen. Diruarekin batera notatxo bat:

“Eskerrik asko egin didazun mesedeagatik. Nire senarraren diru guztiak hartu ditut eta dagoeneko Karibe aldean nago zuri esker. Erikek arrazoia zuen oso detektibe baldarra zinela esatean. Pista ere neuk jarri behar izan dizut! Baina bera ere ez zen oso azkar portatu; nahi izan dudan moduan erabili izan dut bera ezertaz ohartu gabe. Ja, ja,ja!!!”



Haitz Bernedo Calvo - DBH. 2. Maila

Kontu kontari banabil ere, hori ez da ez nire “ofizioa” ez nire “afizioa”

HIRIAN BARRENA

Han zegoen bera, goizeko zazpiak inguruan, kartoi zati batzuen gainean lo egin nahian, arratoiak bere gorputz iletsuaren inguruan bueltaka zebiltzala.

-Arratoi putiok, beti zirikatzen dabiltza eta horrela ezin da lorik egin! Mugimendu azkar bat egin eta arratoi bat harrapatu zuen bere atzaparren artean, eta lehenengo haginkadan burua kendu zion, eta bigarrenarekin arratoiaren gorputz osoa sartu zuen bere ahoan, apurka-apurka jaten hasiaz.

-Gatz pixka bat falta zaio baina ondo egon da goizeko gosea hiltzeko behintzat. Orain, zer egin ez dakidanez, hirian zehar osteratxo bat egitera joango naiz. Eguna

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

argitzen hasi da eta jendea ere, pixkanaka- pixkanaka irteten hasi da. Gero eta txarragora doa hiri hau, ea ezinezkoa da kalean ibiltzea norbaitek harrika edo ostikoka egin barik.

Orduak pasatu ziren eta goizean jandako arratoiak ezin izan zuen goiz osoko gosea baretu. Han inguruan okindegi bat zegoen.Ikusi zuenean harantz joan zen eta iritsi zenean eta ogi guztiak han ikusi , ahoa ere ur egin zitzaion. Okina bere presentziaz jabetu zenean, alboan zeukan erratz zaharra hartu eta kalera irten zen erratza astintzera zihoalakoan.

-Okin zikin hori, ez nauzu joko ba!

Buelta eman eta korrika alde egin zuen okinarengandik ihesi.

-Zer egingo dut orain, gose naiz eta okinak ez dit ezer eman; jatetxe baten zaborren artean begiratu beharko dut.

Hurbilen zegoen jatetxera hurbildu zen. Bere bidetik oinez zihoala, albotik, ile beltz motzeko gazte batek bere mendiko bota zaharren muturrarekin, ostikada sendoa eman zion lurrean luze utzi zuelarik.

-Oraintxe ikusiko duzu zuk!
Salto egin, kolpeatu eta hankaz jotzearekin batera gaztea lurrera bota zuen, hanka odolez beterik zeukalarik.

-Ondo merezia du! Horrela , hurrengoan egin baino lehen bi biderrez pentsatuko du. Ea behingoz jatetxera heltzen naizen, bestela goseak akabatuko nau!
Hamabost minuturen buruan jatetxera iritsi eta zaborren artean miatzen hasi zen, baina ogi puska gogor batzuk baino ez zituen aurkitu.

- Gosez amorratzen nago eta miseria hau besterik ez dut aurkitu. Hobe dut hiri honetatik alde egin eta bizitzeko beste leku hobeago bat aurkitu, hil baino lehen.

Sano nekaturik zegoenez,betiko kartoi zahar zatien gainean jezartzearekin batera lo geratu zen, hurrengo egunean indar berriztaturik jaikiko zelakoan. Egundu zuenerako animaliak han zeuden prest, aurrerantzean bizia hobeagoa izango zenaren esperantzarekin. Beste bi arratoi jan eta hiritik irtetera abiatu zen. Ordu bete aski izan zen hiritik at egoteko eta, ibai luze baten gaineko zubi zuri handiaren gainean berriro ere eragozpenekin topo egiteko. Oraingo honetan, taldeka eta harriz armaturik zetorren ume piloa zen. Harrika hasi zitzaizkion. Haietako harri batek hankan jo eta berriro lurrean etzanda aurkitu zen. Minaren minez zutik jartzeko ere zailtasunak zituen. Eta hori nahikoa ez

gráficas amorebieta

zelakoan, bi mutil hurbildu eta zubi gainetik errekara bota zuten. Hankan zuen zauriak igerian egitea oztopatzen zion; indarrak ahultzen zihoazkion. Azkenean konortea galdu zuen. Berreskuratzerakoan ibai ertzean zegoen. Ez zen ez etxerik ez inor ikusten. Bakarrik arbola mordo bat , baso erdian galdurik. Mekauenka hasi zen minaren mozkorrak zorabiaturik.Basoaren erdialde ilunean barneratu zen janaria eta non bizi aurkitzekotan.Baina bidetik zihoala, zarata batzuk entzun eta beraien jatorria ikertzera jo zuen. Izugarrizko hartz beltza zen. Eta hartzak, izaki arrotz hura ikustearekin batera aharrausi egin zuen.

- Falta zitzaidana ! beste animalia bat! Aurrekoekin nahiko izan ez banu bezala! Eta orain zer?

Ihesari eman zion, hori baitzen bururatu zitzaion irtenbiderik errazena. Ordu laurden pasa ondoren hartza bistatik galdu zuen baina oso nekaturik amaitu zuenez, ez zen ezta ibiltzeko gai ere. Atsedentxoa hartu zuen. Indarrak berreskuratu zituenean, jateko zerbaiten bila joan zen , egun osoko baraua zeukan aldean eta. Halere, txori erdia besterik ez zuen aurkitu. Hori asetzeko nahikoa ez zenez, bilaketari luzaroagoan ekin zion. Alferrik izan zen. Ezer ez! Ikerketa lanetan zebilela , zorioneko kobazulo handi baten aterpea suertatu zitzaion. Pozak eramanda , barruan egon zitezkeen hartzen eremuan sartzen ari zela ahaztu egin zitzaion, azken hauek zoriontasunaren ateak ireki zizkioten arte.

gráficas amorebieta



Maite Mugira - DBH. 2. Maila

“ Irakurtzea oso gustokoa dut. Idazleak berak dituen sentimenduak agertzen ditu eta ni horiek ulertzen saiatzen naiz “

AMONAREN AMODIOA

Batzutan bizitzak opari ederrak egiten dizkizu. Hori da burura datorkidan ideia iazko oporrak gogoratzen ditudanean. 18 urte egin berriak nituen Donostiako tren hura hartu nuenean. Ni bilbotarra naiz eta institutoa bukatu berria nuen. Hurrengo urtean unibertsitatera joateko nintzen. Gure etxean justu xamar genbiltzan diruarekin eta hori zela eta, gurasoek txiringito bat alokatu zuten hondartza inguruan uda osorako.

Donostiako osaba-izebaren gonbitea jaso nuen uda beraiekin igarotzeko eta onartu egin nuen. Donostiarako tren hura hartu nuenean nire lehengusinarekin zein ondo pasatuko nuen baino ez neukan buruan. Pentsamendu hoiekin nenbilela, amonatxo bat jesarri zen nire alboan. Txikia zen eta ilea elurra bezain zuria zeukan. Bere begiak urdinak eta handiak ziren eta bere adinerako bizkor mugitzen zen. Bat-batean galdera bat egin zidan:

- Zenbat urte dituzu?

- Hemezortzi. Joan den astean eginak (erantzun nion).

- Hemezortzi urte. Nik zure adina nuenean...
Eta honela hasten da nik inoiz entzun dudan maitasunezko istoriorik zoragarriena.

“ 1937. urtean, guda zibil betean 18 urte egin nituen. Etxean ama eta ni bizi ginen aita gudara joana baitzen.

Egun beltz batean gutun bat heldu zitzaigun: aita hilda zegoen. Akabo. Ez genuen gehiago ikusiko. Aita hil eta gutxira, ama eta biok eritetxe batean hasi ginen laguntzen zaurituak gero eta gehiago baitziren. Bertan amerikar brigadista bat ezagutu nuen. Mark zuen izena. Elkar maitemindu ginen.

Denbora aurrera joan ahala, Mark-ek berarekin ezkontzeko eta Ameriketara joateko eskatu zidan. Nik ezetz erantzun nion, ezin nuen ama bakarrik utzi eta. Hori entzutean Mark-ek aldegin zuen. Bere maitasunaren ilusioaz ez nintzen inorekin ezkondu.

Handik 20 urtetara, hogeita hamazortzi urte nituela dei bat hartu nuen. Mark zen. Europa aldean negozio bat zuela esan zidan eta aukera hau aprobetxatu nahi zuen elkar ikusteko.

Donostiako “ El Paraiso” kafetegian gelditu ginen. Elkar ikusi genuenean izugarria izan zen, denbora geldi balego bezala. Mark-ek bere bizitza kontatu zidan. Berarekin ezkontzeko eskatu zidanean emandako
ezetzak zelako mina egin zion eta Ameriketara itzuli eta denbora batetara beste emakume batekin ezkondu zela. Emakume horrekin seme bat izan zuela esan zidan poltsikoko diruzorrotik argazkia atera eta erakusten zidan bitartean. Oso mutil ederra zen...”

Bat-batean, bozgorailutik Donostiara heltzeko hiru parada baino ez zirela gelditzen abisatu zuten.

Amonatxoaren begiak malkoz beterik zeuden.

-Eta orain? Zer da zure bizitzaz? (galdetu nion guztiz interesatuta)

-Orain, 46 urte beranduago berarekin elkartzera noa (erantzun zidan).Mark-en emaztea orain dela urtebete hil zen eta banandurik eman dugun denbora berreskuratu nahi dugu. Bizitza bukatzeko ez zaigu asko falta eta gutxienez azken urteak elkarrekin egin nahi ditugu. Donostian elkartuko gara,
“ El Paraiso” kafetegian. Gezurra badirudi ere oraindik existitzen da eta.

- Eta zu... nora zoaz gazte?

- Lehengusuen etxera noa, uda pasatzera.

- 18 urte egin berriekin bizitza osoa daukazu aurretik. Aprobetxatu uda!

- Bai, halaxe egingo dut. Zure maitasun istorioa ederra izan da. Beti izango zaitut gogoan (erantzun nion trena Donostiara heltzen zen unean)

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

Hau esatean, amona emozionatu egin zen eta besarkada handi bat eman zidan. Maletak hartzen lagundu nion eta trenetik jaitsi ginen. Geltokian Leire, nire lehengusina eta izeko eta osaba ikusi nituen. Amonari taxi bat hartzen lagundu genion. Taxia urruntzen zen bitartean, ni ere egunen batean horrelako maitasun istorio handia bizitzea espero nuen.

gráficas amorebieta

Lukene Endeiza López - DBH. 2. Maila

"Euskara ez galtzea eta gerrarik ez egotea dira nire nahiak"

KALABAZAK ETA BIHOTZAREN TAUPADAK

Goizeko 7:30ak ziren. Ohetik jaiki zen klasera joateko. "Zonbi" bat zirudien. Urez betetako bi poltsa zituen begi txiki eta urdinetatik zintzilika, eta bere ile luze horail zoragarria, lehoiaren ile kizkur eta zorabiatua zirudien. Astiro-astiro joan zen komunera, bere hanka eta beso amaigabeak lurretik zehar arrastaka zihoazela. Aurpegia garbitu, eta bapatean, mozorro bat kendu izan balu bezala, betiko neska liraina agertu zen. Arropak erantzi eta egun hartarako prestatutako arropak jantzi zituen. Dotore-dotore joan zen sukaldera gosaltzen. Bertan, ama zuen itxaroten gosaltzeko prest. Ama, andre sendo eta handia zen. Ilea eta begiak ikatza bezain beltzak zituen eta, alabak bezala, beso eta hanka bukaezinak. Alaba sukaldera sartu zen:

- Egun on, ama! Zelan egin duzu lo?.-

- Nahiko txarto, ez dut begirik itxi gau osoan. Lexuri, bizkortu zaitez bestela berandu egingo zaizu. Gogoratu oraintxe bertan daukazula naturako azterketa!.-

- Egia da! Ene bada, berandutzen ari zait!.- Gosaria hartu eta ziztu bizian irten zen etxetik.

Lagunekin batu zen patioan. "Eskerrak!" pentsatu zuen, oraindik ez zuelako txirrinak jo, horrela errepaso arin bat egiteko denbora izango zuen.

gráficas amorebieta

Bat-batean, aingeru bat izango balitz bezala, mutil eder hura agertu zen. Gorka deitzen zen. Altua eta beso eta hanka luzeduna, ile erdi luzea (leporaino heltzen zitzaion) lurra bezain marroia. Begi izugarri berdeak zituen, belarra edo zuhaitzen hostoen kolore berdea bezalakoa. Aho txiki eta ezpain estuak zituen eta aho barruan hortz zuzen eta zuri-zuri batzuk, hauek erakusten zuten berak zuen irribarre alai eta distiratsua. Mutiko alai, zintzo eta jatorra zen, hala ere, ez zion jaramonik egiten Lexuriri.

Heldu zen azterketa ordua. Banan-banan jarri, eta andereñoak azterketak banatu zituen:

- Beno, hogeita hamar minutu dituzue azterketa bukatzeko.-

Denak txundituta utzi zituen, ez baitzen denbora nahikoa horrelako azterketa bat bukatzeko.

- Ez da oso zaila.- Esan zuen. Hori bai, irakasle guztiek beti esaten dute esalditxo hau, gustuko dutela ematen du, gainera, esaten dutenean, azterketa zailagoa izaten da.

- Ah!.- Eta buelta eman zuen,- ez dut nahi txuletak edo horretariko gauzarik ikusi nahi azterketa honetan, ulertuta?- Denek baiezkoa eman zuten, hala ere, askok eta askok, bere txuletatxoa ondo ezkutatuta zuten.

Lexuri, bapatean, zuri geratu zen, hau da, ikasi zuen guztia (ez gauza asko) ahaztu zitzaion eta azterketa erdia baino gehiago egin gabe utzi zuen. Horrek, nota nolakoa izango zen argi utzi zuen (imajina dezakezue).

Egun guztian zehar burua beste mundu batean zuen, segur aski, Gorkaren mundutxo horretan. Mutil horretaz egun guztia pentsatzen. Bere lagunak eta baita irakasleak ere, beragatik kezkatuta zeuden. Behin eta berriz galdetu zioten ea zer demontre gertatzen zitzaion:

- Lexuri, ondo al zaude? Sukarra al duzu? Edo, zer demontre gertatzen zaizu, neska?- Hala ere, mutu segitzen zuen, hitz erdirik esan gabe.

Halako batean, Gorka Lexurirengana hurbildu zen. Horrela esan zion bere ahots gozoarekin:

- Lexuri, zer gertatzen zaizu? Ondo al zaude? Kezkatuta naukazu. Egun guztian zehar niri begiratzen egon zara eta oso arraro zaude…ez dakit, zer kristo gertatzen zaizu?-

Lexurik hitzik gabe segitzen zuen eta hau idatzi zion: “Ba…nik zu oso gustuko zaitudala eta egun guztian zehar horrela zugatik egon naizela (beno, baita naturan ateratako kalabazagatik) ez didazulako kasurik egiten, hori da guztia”. Gorkak erantzun zion:

- Ba, barkatu. Egia esan, nik ere zu oso gustuko zaitut eta lotsa ematen zidan zuri zerbait esatea. Barkatu, benetan. Nahi al duzu zapatu gauean nirekin zinemara etorri?- Bapatean Lexuriren bihotza berpiztu egin zen:

gráficas amorebieta

- Ongi da, ba zapaturarte. Agur!-

Eta poz-pozik bakoitza beraren etxera joan zen (beno naturako kalabaza oraindik zintzilika geratu zen). Gorkak urrunetik esan zion:

- Ah! Eta ez kezkatu azterketagatik, hori gertatzea normala da, neuri ere berdina gertatu zait behin baino gehiagotan!-

Lexuri etxera heldu eta inori ezer esan gabe, bere logelara sartu, musika ipini eta afalordurarte egon zen botata bere ohean, pentsakor, bere buruan bakarrik zapatu gaua zuelarik, ez zuen beste ezertan pentsatzen, ezta naturako azterketan ere ia ia bertan lo geratu zen baina amak deitu zion:

- Lexuri, afaria prest dago! Etorri sukaldera!

Lexurik ez zuen ezta hitz erdirik ere esan afaltzen zegoen bitartean. Ama konturatu zen zerbait gertatzen zitzaiola, baina ez zion ezer galdetu.

22.00etan gure Lexuri lotara joan zen, ez dakigu zertaz egin zuen amets, baina lo gozo-gozo egin zuen.

gráficas amorebieta

Alejandra Loizaga Aboitiz - DBH. 2. Maila

"Saskibaloia eta musika entzutea dira nire zaletasun handienak"

ESKUTITZA

Baionan, 1985eko irailean

Ene Itziar maitea:

Nire izena, eskutitzaren gainazalean ikusiko zenuen modura, Iñaki Etxeberria da eta Lapurdin bizi naiz. Oso zaila egin zait eskutitz hau idazten hastea, benetan gauza garrantzitsu bat esateko baita. Orain dela hogei urtetik nago ekintza hau egiteko asmoz, baina orain arte ez dut inoiz behar beste indar atera nire barnetik. Idazten hasten nintzen bakoitzean, negar malkoak ateratzen zitzaizkidan eta ezinezkoa egiten zitzaidan aurrera jarraitzea.

Zure bizitzaz hainbat gauza dakizkit, ez duzula neba-arrebarik, Donostian bizi zarela, Idoia izeneko ama hil zitzaizula orain dela bost urte... eta baita ez dakizula zure aitari buruz ezer. Ain zuzen ere horri buruz hitz egiteko idazten dizut. Ni bainaiz zure aita.

Oso istorio luze eta korapilatsua da eta hoberena gutxika-gutxika eskutitz honetan dena azaltzea izango dela uste dut.

Zure ama eta ni 1890eko apirilean ezagutu ginen, benetan leku oso berezi batean, Londresen. Inoiz ez dut egun hura ahaztuko. Idoia, soineko zuri batekin eta jertse more batekin jantzita zegoen. Benetan ederra zegoen, baina gehien liluratu nindutenak bere begiak izan ziren. Guztiz

gráficas amorebieta

urdinak ziren. Bere begiradak oso sentimendu berezi bat eragin zidan, beste noizbait begiratzeko modu hura ikusita banu bezala. Konfiantza eta maitasuna aditzera eman zidaten eta momentu hartatik, neskatxa ura bizi guztirako nire ondoan egon dadin ahalegin guztiak egin behar nituela jakin nuen, edozein oztoporen gainetik.

Pentsamendu hori ordea, ez zen inolaz ere posible izan, gure aldetik ahalegin guztiak jarrita ere. Nire gurasoek, oporraldietatik Donostiara bueltatzean, ez zuten gure amodioa onartu. Idoia, kaleko neska arrunt bat zen, aita arrantzalea eta ama sukaldaria zituena eta ni ordea, beste "bizi maila" batetakoa nintzen. Garai hartan... badakizu! Nire aita, oso enpresa garrantzitsu batetako zuzendaria zen eta besteek zer esaten zuten guztiz garrantzitsua zen berarentzat. Nire gurasoek beste pentsatzeko modu bat zuten.

Noizbehinka zure amaren etxera ihes egiten nuen gauez, bera gabe egotea guztiz ezinezkoa egiten zitzaidan eta. Nire ama, ordea, ez zen batere tuntuna eta laster konturatu zen nire irteeraz. Irtenbide giza, Baionara bizitzen joatea pentsatu zuten, nire aitak, bertatik ere enpresa gidatzea posible baitzuen. Gainera, sendiko batzuk ere bertan bizi ziren.

Momentu horretatik aurrera, zure amak eta nik, kontaktua galdu genuen eta ez ginen bost urte geroago arte ikusi. Topaketa hau, Frantziako gailur izugarri garai baten mendi magalean izan zen.

Ni negozio bidaian nengoen bertan, nire aitaren enpresan jarri nintzen lanean eta. Bera ordea, txikitako lagun bat bisitatzera joan zen bertaraino, urte askotan ikusi gabe baitzeuden.

Nire hoteletik atera eta haize pixka bat hartzera joan nintzen, hain polita zela esaten zidaten leku hartara. Idoia, bere lagunaren herriaren inguruak ezagutzeko asmoz joan zen mendi magal hartara. Bizitzako kasualitateak!

Oso leku polita zen. Ia egunero, zerua estalki urdin-urdin batekin apaindua azaltzen zen eta behealdean zihoan erreka zabalean, guztia isladatzen zen. Landaredia, kolore berde desberdinez osatzen zen, batzutan ilunagoa, bestetan horixkagoa. Han zegoen Idoia, inoiz baino ederrago. Bertan naturaren beste sorkunde paregabe bat gehiago ematen zuen. Gure maitasunaren eta une horren ondorio izan zinen zu ere.

Oraingoan ere, berriro banatu behar izan genuen, arazo berbera dela eta. Baina ez zen gauza bera izan. Zure amak zu zintuen sabelean eta agurtu baino lehen, etorkizuneko zure argazki desberdinak eta oroigarriak bidaltzeko eskatu nion Idoiari, zurekin kontaktua inolaz ere galdu nahi ez nuelako.

gráficas amorebieta

Eskutitzen bitartez eraman genuen aurrera gure erlazioa hurrengo hamar urteetan. Beti genbiltzan ezkutuan, inork gure sekretua jakin ez zedin.

Ni, nire gurasoek ezer susma ez dezaten, beste emakume batekin ezkondu nintzen 1905.urtean. Zure amak ordea, ez zuen nire erabakia ondo hartu, azkenean emakume hortaz maitemintzen amaituko nuela uste baitzuen. Momentu horretan, gure erlazioa bukatu egin zen eta zure amak ez zidan beste eskutitzik erantzun, nik ehunka bidali arren. Bere jokaera ere ulertzekoa zen.

Gaur egun, nire bi alabekin bizi naiz, nire andregaia orain dela bost urte hil baitzen. Beraz, bi ahizpa dituzula ere esan behar dizut, Bihotza eta Aitziber. Hamalau eta hamar urte dituzte eta zu ezagutzeko irrikaz daude. Beraiek historia guztia ezagutzen dute.

Badakit oso zaila dela guztia ulertzea, baina jakin behar duzu zure ama izan dela mundu honetan gehien maitatu izan dudan pertsona eta ez dudala inoiz ahaztuko. Ahazteko denbora askorik ere ez dut izango, ezbeharrez. Oso gaixotasun larri bat dut, minbizia hain zuzen, eta sendagileek ez diote irtenbiderik aurkitzen. Ni ezin izango nauzu ezagutu, baina bai ordea, nire bi alabak. Har ezazu nire azken eskaera bezala , eta ahalegindu beraiekin hartu-emana izaten, beraiei ez baitzaie zutaz aparte inor gelditzen mundu honetan. Ez dizut besterik eskatuko.

Guzti hau ondo hartuko duzula espero dut. Ez dut zugandik gutxiago itxaroten.

Besterik gabe eta maitasunez, zure aitak



gráficas amorebieta

Pello Bilbao Lopez de Armentia - DBH. 2. Maila

“ Ipuin hau Foruko aitxitxe eta amumari eskeintzen diet.
Eurek ere hainbat ipuin kontatu baitizkidate”.

ERRAMUNEN URRIKO AZKEN ASTELEHENA

Urrian sartuak ginen jada, eta Urepel, Nafarroa Behereko herrixka txiki bateko artzainak gaztaiak egiten ziharduen. Erramun zuen izena, nahiko txikia eta argal xamarra zen, ezin zitekeen esan asko jaten zuenik. Aurpegia zimurrez betea zuen hirurogei urte gutxienez beteak zituela. Aurpegi zimurtuan, bekain lodi eta iletsuen azpian, kaniken pareko bi begi txiki ageri ziren erdi ezkutuan. Tartean sudur fin eta luzea zuen. Herritik aparteko zelai batean bizi zen eta ez zuen jendearekin tratu askorik, bakarrik bere gaztak erostera joaten zirenekin egoten zen. Ezagutzen zutenek ziotenez gizon bakartia eta langilea zen, euli bati ere min egingo ez liokeen horietakoa. Beti janzten zituen panazko prakak eta alkandora zahar bat, eta, nola ez, bere ilea beti ezkutuan txapel beltz baten azpian.

Luzaroan maitasun osoz egindako gaztak saltzeko ordua iritsi zitzaion. Horretarako zein leku aproposagoa Gernikan ospatzen den Urriko azken Astelehena baino. Bi egun baino ez ziren falta azoka egunerako eta Gernikan bilduko ziren guztiak harriturik utzi nahi zituen bere gaztekin; baita gazta asko saldu ere, diru pixka bat behar baitzuen bere baserri zaharra konpontzeko eta.

Han abiatu zen ba itxaropentsu gure artzaina, gazta piloa furgoneta erraldoi batean zamaturik. Egun bat falta zelarik iritsi zen Gernikara, bost orduko bidaia nekagarriaren ostean

gráficas amorebieta

zeren eta furgoneta madarikatuarekin arazo ugari izan zituen. Den dena zegoen prestaturik biharamunean ospatuko zen azoka handirako. Furgoneta parking erraldoi batean aparkatu eta mokau bat jatera abiatu zen lehenengo aurkitu zuen tabernara. Bapo jan eta edan zuen, beno, beharbada, gehiegi edan zuen, pare bat ardo botila eta patxarana garbitu baitzituen.

Parking-era iritsi zenean, ez zuen gogoratzen non demontre utzi zuen bere furgoneta, alkoholaren ondorioz oroimena ere galdu baitzuen. Luzaroan parking-ean bila ibili ondoren, hara non ikusi zuen bere furgoneta, barruan sartu eta bere posturantz abiatu zen. Postura heldu zenean furgonetaren atzealdeko atea ireki eta bere gazta ederrak ateratzera zihoanean....

Desilusio izugarria hartu zuen, bere gogo guztiekin egindako gazta eder haien ordez, bi txerri narrats eta potolo zeuden. Furgonetaz erratu zen eta urte hartako bere diru iturri bakarra pikutara joan zitzaion. Halako batean irakurri zuen ondo argi eta garbi kamioiaren hegaletariko batean “Txorierri granja”.Berandu zen jada atzera egiteko,furgonetara igo eta korrika bizian abiatu zen berriro parking-era.

Parking-ean zerbait arraroa gertatzen zen, ertzain ugari baitzebiltzan batetik bestera biraka. Libre zegoen toki bakarrenetarikoan aparkatu eta granjako furgonetatik jaitsi zenean, hiru ertzain hurbildu zitzaizkion. Ertzainek pistolak zituzten eskuetan eta gure artzain gizarajoa urduri jartzen hasi zen.Azkenean, ertzainek pistolekin artzaina apuntatu eta “Gora eskuak”oihukatu zuten hirurek batera. Erramunek ezer ulertzen ez zuelarik, eskuak gora altxatu zituen dardarati. Ertzain bat hurreratu eta esku burdinak jarri zizkion, hitzik ere ez zitzaion irteten urduritasunaren urduritasunez. Furgonetara eraman eta Erramunek bere lehen esaldia esan zuen, asko kostata, berak ez zuela ezer txarrik egin eta mesedez aske uzteko. Ertzainek furgoneta bat lapurtu zuela leporatu zioten eta mila euroko multa bat ordaindu beharko zuela. Erramunek, etsita, gertatu zitzaion guztia hitzez hitz kontatu zien. Ertzainek ez zekiten sinistu ala ez, baina Erramuni nahiko gizarajo aurpegia ikusi ziotenez, bostehun euroko multa ordainduta, joaten utzi zuten.

Burumakur, parking-etik bueltak ematen zebilen noraezean, berak ezagutzen ez zuen herri batean eta diru guztia, furgoneta eta, berarekin batera, gazta guztiak galduta. Gernikara dirua eta poza irabaztera etorri, eta dena galdu zuen. Gaua gainera zetorkion eta biharamunean hasten zen azoka handia.

Halako batean, horrenbeste laino beltz eta mardulen artean, eguzki izpi bat azaldu zen. Hara non ikusi zuen handik laupabost metrora bere furgoneta zuria, bazen garaia furgoneta erraldoi hark poz pixka bat emateko. Pozaren pozez furgonetara abiatu eta atzeko atea ireki zion. Ireki bezain laster bereizi ahal izan zuen berak egindako gaztaien usain zoragarria. Bere postura abiatu eta gogo biziz jarri zituen erakustmahai gainean mota askotako gaztai ugari jendeak ondo ikusteko moduan. Eguzkia ezkutatu zen guztiz, gauari paso emanez, baina Erramunek ezin zuen loak hartu, hurrengo egunean zerbait handia gertatuko zitzaiolakoan baitzegoen.

Goizean goizetik hasi zen jendea posturik postu produktu desberdinak begiratzen eta erosten. Erramunen postura ere hurbiltzen ziren bezeroak. Baina, halako batean, ezohiko

gráficas amorebieta

bezero bat etorri zitzaion. Bezero hura gaztaien lehiaketa antolatzailea zen eta bertan parte har zezala eskatu zion. Erramunek, baietz erantzun zion pozez gainezka; gizon hark gaztai bat eskatu zion epaimahaikoek dasta zezaten. Ordubete barru izango zen lehiaketa, bere postu aurrean zegoen eszenatokian. Iritsi ziren ba gizon potolo batzuk, epaimahaikoak, eta gaztaiak dastatzen hasi ziren. Azkenik, epaimahaikoek, lehiaketaren arduradunari paper bat eman eta hura mikrofonoaren parean jarri zen. Lehendabizi hirugarren gelditu zenaren izena eta sariak esan zituen, gero bigarrenarenak eta azkenik... Irabazlearen izena esan zuen, hain zuzen ere Erramunena, baita hiru mila euroko saria eta txapela irabazi zuela ere. Erramun eszenatokira igo zen, pozaren pozez ia estropezu ere egin zuen, eta hiru mila euroko txeke handi bat jaso zuen.

Erramunek gauean izan zuen susmo handia egia bihurtu zen. Lehiaketan irabazitako diruarekin bere baserria konpon zezakeen. Gainera, ordutik aurrera gazta mordoa saldu zituen, bere gaztak lehiaketa irabazi ondoren famatu bihurtu baitziren. Esfortzu eta maitasun askoz egindako gaztaiek fruitua eman zuten eta Erramunek ikasi zuen: Saiatuz gero, dena lor daitekeela.

gráficas amorebieta

Leire Zabaleta Izagirre - DBH. 3. Maila

"Ipuinak ametsak dira eta nik ametsak ditut maite".

EZKUTUKO HILTZAILEA

Astelehen goiza zen. Eguraldi ona egiten zuen, eta ni beti bezala ikastolara nindoan, nahiz eta ez gustatu. Asteburu zoragarri baten ondoren ez nuen ikastolako irakasle txapa bat jasateko gogorik, baina nire betebeharra zen. Gu ikasle gixajoak ikastolara joango ez bagina, nork emango lieke jateko dirua bertako irakasle diren pertsona horiei?

Beno esatera nindoana. Ikastolara nindoan, eta atera heltzean, eraikuntzaren inguruan, inor ez pasatzeko hesi batzuk zeuden. Jende pila bat zegoen ikastetxearen barrualdera begira. Oraingo jendea oso kuxkuxeroa da. Ni ere zer gertatu ote zen ikusteko hurbildu nintzen. Han zegoen bati galdetu nion, asko jakitearen itxura baitzeukan. Honek, hilketa bat izan zela esan zidan. Hura bai ez ustea. Eta hildakoa nor zen galdetzean, Pedro fisikako irakaslea izan zela esan zidan; oraindik sorpresa handiagoa! Irakasleen gelan izan zen, azterketa batzuk zuzentzen zegoela. Labain bat sartu zioten lepotik. Dena zegoen odolez beterik. Pedro nahiko irakasle zaharra zen, txikitxoa, bere ileei jatorrizko zuritasuna

beltzez ezkutatzen ziena telebistan saltzen duten horrelako tinte batez. Egun hartan ikastola itxi egin zuten eta horregatik berriro ere etxera itzuli nintzen. Nire amak zer gertatzen zen galdetu zidan eta dena kontatu nion. Bera ere ahozabalik geratu zen.

Hurrengo egunean, ez zen beste ezeri buruz hitzegiten gure gelan. Ez bakarrik gure gelan, baita ikastola guztian ere. Oraindik ez zekiten hiltzailea nor zen. Aste hura pasatu zen. Eta hurrengoa eta hurrengoa. Irakasle guztiei galderak egin zizkieten.

Non egon ziren gau hartan, zer ordutan, norekin, … Inor ez zen galdeketatik libratu. Ezta garbitzailea ere! Honek, bere andre eta umeekin etxean egon zela esan zuen, beraz bakean utzi zuten. Ez zuten atera ezer garbian eta horretan geratu zen.

Hilabete beranduago nire urtebetetzea zen. Oso urduri nengoen. Ez nekien zer oparituko zidaten. Aurreko gauean ez nuen lorik ere egin eta goizean goizetik amarengana joan nintzen korrika nire opariaren bila. Berak ez zidala ezer erosi esatean gezurretan ari zela uste izan nuen. Sinestu ezinik etxe guztia miatu nuen. Ezerren arrastorik ere ez. Azkenik ama ohetik altxatu eta oparia eman zidan. Nik nahi nituen zapatilak ziren. Banindoan ni nire zapatila berriekin ikastolara poz-pozik eta hara non ikusten ditudan nire lagunak bidean.

Etxeranzko bueltan zihoazen. Ni harrituta, ea zer gertatzen zen galdezka hasi nintzen. Hilketa berri bat zela eta ikastola berriro ere itxia zela esan zidaten. Oraingoan Felix matematikako irakaslea zen. Pertsona lodikotea, bizarduna eta burusoila. Nahiko altua. Beti zebilen adarra jotzen. Oso umore oneko pertsona, ironiak aparte. Oraingo honetan liburutegian gertatu zen hilketa. Poliziak ezin zuen hura aztertu gabe utzi. Hiltzailea edonor izanda ere, bi pertsona hil bazituen hirugarren bat eta laugarren bat ere hilko zuela pentsatzekoa zen, beraz ez zegoen denborarik galtzeko.

Berriz ere galdeketari hasiera eman zioten. Oraingo honetan, Ainara ingeleseko irakaslearen erantzuna oso interesgarria iruditu zitzaien. Etxean egon omen zen, bera bakarrik, liburu bat irakurtzen. Oso susmagarria. Arinagokoan ere bere amaren etxera joan zela esan zuen baina gezurra izan zitekeen. Besteen erantzunak bata bestea baino sinpleagoak ziren. Sara, 24 urteko gorputz heziketako irakaslea zen eta hau bere mutilagunarekin zinera joan omen zen. Maria informatikako irakaslea zen eta bere ahizparekin etxean ei zegoen, azken honen urtebetetzea ospatzen. Lorea,



gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

frantsesekoa, Josu gure tutorearekin gure azterketak komentatzen egon ei zen, eta azkenik garbitzailea, beti bezala bere etxean bere familiarekin egon ei zen. Beraz Ainara zen geratzen zen bakarra. Ikastetxeko giltzak zituen bakarra. Poliziak Ainara preso hartu zuen. Baina bere erruduntasunak 48 ordu iraun zituen, gau hartan ez usteko bat gertatu baitzen. Bai, beste hilketa bat. Inork ez zuen espero. Ainara giltzapean izanda, beste hilketarik izatea ezinezkoa zela uste zuten. Gainera oraingoan bizia galdu zuena Aitziber, Ainararen lagunik onena zen. Beraz ezinezkoa zen bera hiltzailea izatea. Poliziak ez zekien zer egin. Egun bat geroago Ainara askatu zuten. Eta hiltzailea harrapatzeko medioak berak jarriko zituela agindu zuen. Horrela, berriro lanera bueltatzen zela eta normaltasunera itzultzen zirela sinestarazten ahaleginduko ziren baina hiltzailearen hurrengo “biktima” nor zen argi izanik: Ainara.

Plan bat prestatu zuten inori ezertxo esan gabe hiltzailea harrapatzeko. Ilunabarrean izango zen, batzarra egingo zen eta ondoren Ainara guraso batzuen zain geratuko zen, besteak alde egin eta gero. Eta gizakion sinpletasunak ez zuen hutsik egin: Hiltzaileak, gurasoen bilera amaitu arte itxaron zuen eta ondoren, irakasle gelan geratu zen, iluntasunaren babesean, ezkutupean. Baina bazegoen berak ez zekien zerbait: armairu ondoan zelataria zuela. Uste baino gertuago. Horrela Ainara sartzera zihoanean beltzez mozorrotutako hiltzailearen labanaren mugimenduak, zelatariaren pistolarena ekarri zuen: Pun, tiro, eta labana behera! Borroka eta poliziak inguruan. Dena bukatua zen: aurpegian zeukan estalkia kendu zioten eta hara non aurkitzen duten gutxien espero zuten pertsona!

Beti bere etxean emazte eta semeekin zegoena; bai garbitzailea! Baina bere bizitza ikertzerakoan, itxurazko nortasun bat asmatu zuela aurkitu zuten: otsoa ardi larruz jantzita! Amets gaiztoa zirudien! Tristura eta poza nahastu ziren egun hartan; justiziak eta legeek jainkoak bailiran epaituko zutelakoan.

Mikel Agirre Alonso - DBH. 3. Maila

“Lagunak ondoan eta euskara bihotzean..., ibili munduan”.

EURIPEAN



Zoritxarra ez da ni neu izendatzeko balio duen hitzik egokiena. Hutsaren hurrengoa, agian,... ezta. Euripean bizi den gizaki-gaixoa naiz ni.

Dena dago ilun. Orain dela pare bat urte dena zegoen ilun. Auskalo noiztik ikusten dudan dena ilun. Ez pentsa itsua naizenik, ez. Baina nere bihotzaren hondoan itsuak bezala sentitzen naiz, galdua, norabiderik ezean, makila faltan eta laguntzarik gabe.

Egun eta gau igarotzen ditut kaleak, zerbaiten bila, agian, baina ez dut sekula aurkituko. Gizaki gehienek helmuga bat dute gogoan, eta hori lortzeko ahalegin ugari egin behar; baina nik, bidea hasi bezain laster etsi nuen. Batzuetan, bidea jarraitzeko gogoak ditut, baina indarra dut faltan.

Izan zen, bai, nere bihotzaren poza bete zuen norbait... baina honek ere etsi zuen...

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

Nere egunak mundu honetan mugatuta daude. Edozein egunetan, nere burua ibaira botako dut... eta egia esan, inork ez du nire falta somatuko...

Oraindik zain nago. Euria noiz hasiko zain. Mundu honetara etorri nintzen egunean, euria zen; izan dudan egunik alaiena eta euria; txarrena eta euria baita; joaten naizen egunean, nola ez ba, euria izan beharko...Bitartean, ez zait batere axola zuei nere zoritxarraren istorioa kontatzea...

Urumea ibaiaren oinetan jaio nintzen, paisaiak oraindik nolabaiteko edertasuna erakusten zionean inguruko jendeari. Gaur egun ezin dezakegu berdina esan nahiz eta Donostia oso herri eder eta alaia izan. Hona ekarri ninduten jaio bezain laster, nere amona inguruotan bizi baitzen. Gainera, gurasoek, ez zuten beste inon aurkitu gure egoerari ondo zegokion moduko zerbait. Nola edo hala moldatu ziren eta zerbait aurkitu zuten.

Etxe hura ez zen batere erosoa. Txikia zen, bizpahiru logela edo; ez zen ia argitasunik sartzen, izan ere, leiho guztiek “pub” batera ematen zuten, hau aurrez aurre geneukala. Gauez ezin genuen lorik egin, behintzat hori kontatu zidan aitak.

Hiriburuan bertan hazi eta hezi nintzen gurasoen etxean. Ez naiz gauza askotaz oroitzen baina badakit nere ama Mª Luisa deitzen zela. Zorionez edo zoritxarrez, aitari buruz ez dut ezer oroitzen. Egia esan zerri hutsa zen. Ama emakume liraina zen, oso ederra eta langilea. Ile kizkur horixka zuen, begi berde dizdiratsuak eta ezpain mehe eta erakargarriak. Ez zen oso altua baina ondo mantentzen zen, egia esan ez genuen etxean inork askorik jaten. Aita, ordea, gizon desatsegin eta alferra zen, aitaren lana ongi betetzen ez zuen mozkor eta inuxentea. Ia burusoila, lodia eta txikia, kroketa bat bailitzan.

Agian, pixkat idealizatuta esaten ditut gauzak. Egia esan, garai haietan oso txikia nintzen eta urte asko pasa dira. Oraingo ideiek eta garai hartakoek nolabaiteko talka egiten dute nere buruaren barnean eta dena dago desitxuraturik, ilun berriz ere.

Bi urte nituela sartu ninduten ikastolan. Haurtzaindegitik irten arte egon nintzen gurasoen etxean. Ondoren, ama hil eta aitarekin bizi izan nintzen, ostatu batean. Ez dut gogoan ama zertaz hil zen baina ziur naiz, ez zela edonolako gaixotasun batekin joan. Ziurrenik penak hilko zuen. Egia esan ni ama banintz nahiago izango nukeen berari gertatutakoa, bizi zen moduko gizon batekin bizitzea baino. Nire gogoa gaizki ez badabil, aitak ama jipoitzen zuen, ez zuelako etxera behar beste diru ekartzen.

Aita lanetik bota zuten eta ezin genezakeen alokairua ordaindu, horregatik etxea kendu ziguten. Txarretik gero eta egoera txarrago batera gindoazen, eta ia 7 urte nituenean, ikastolatik atera ninduen aitak. Orduan denbora gehiago igarotzen genuen batera eta gauza asko kontatzen zizkidan. Horiek izan ziren berarekin igaro nituen unerik onenak. Baina, aldatuz joan zen, txarrera nola ez ba, amarekin egiten zuen bezala ni ere jipoitzen ninduen, bere zorigaitza adierazteko. Honetaz konturatu bezain laster, pertsona batzuek, nere aitaren besoetatik aldendu ninduten... betiko.

gráficas amorebieta

Horiek izan ziren gurasoekin bizitako urteak, tamalgarriak benetan. Orain, ni, beste bizitza bat hastera nindoan pertsona berriekin eta gauzak hobetu ziren, pixkat bai behintzat.

Tratu txarrak jasotako haurren heziketa zentru batean sartu ninduten. Hasiera batean, galdua sentitzen nintzen, egia esan ez nuen lagunik egiten, eta gogorik ere ez, banekielako baztertuko nindutela. Oso ezberdina nintzen, guztiek zuten esperantza apur bat begietan, baina ni errealistagoa nintzen eta banekien inork ez gintuela handik aterako. Toki hura ez zen oso atsegina, tratu txarren aurkako zentru bat izateko. Egoera oso txarrean zegoen, noiz edo noiz buru gainera eroriko zain. Denok batera egiten genuen lo, berrehun ume inguru, bai neskak eta bai mutilak. Egoera hori niretzat berria zen, izan ere, eskolan denok ginen mutilak. Janariak aste bat aurreragokoak ziren eta jatera behartzen gintuzten. Ez geneukan inolako entretenigarritasunik. Egunero gauza berbera egiten genuen, zortzietan jaiki, gosaldu –esnea eta pare bat gaileta-, hortzak garbitu eta kanpora irteten ginen. Zonalde hontara goizetan bakarrik etortzen ginen. Belardi handi bat zegoen han umeok jolasteko.

Kanpotik itzultzerakoan, eskolan zeuden bezalako gela batera eramaten gintuzten. Bertan, matematikak eta erlijioa baino ez genituen ikasten, bakoitza bi ordu, amaiezinak. Jarraian bazkaltzera eramaten gintuzten. Beti gindoazen leku batetik bestera ilaran, militarrak bagina bezala, baina ez, zortzi urteko mukitsu tontolapikoak ginen.

Bazkalostean, siesta botatzen genuen, pare bat ordukoa. Jaikitzean, edifizioaren barnean jolasten uzten ziguten inolako kalterik sortzen ez bagenuen, noski. Ni beti nindoan leku berdinera, komunera. Bertan sartu, komunean eseri eta aitak behin oparitutako labaina batekin gauzak idazten nituen paretan.

Jada gaua zenean, liburutegi batera eraman eta irakurtzera behartzen gintuzten. Oso makalak ginen batzuk, bizkorrak beste batzuk eta ordea, geratzen zirenak, ez zekiten irakurtzen... Liburutegian ordu bat burutzean afaltzera joaten ginen eta ondoren, hortzak garbitu ondoren ohera. Egunero zen horrela, behin da berriz.

Noizik behin, familia bat etortzen zen eta gu aztertu ondoren, bat aukeratzen zuten, paper batzuk sinatu eta eraman egiten zuten, eros daitekeen muki-zapi baten aldera.

Eguneroko errutinaz asperturik geunden ume gehienok eta gainera, han eginiko adiskide bakarrak eraman egin zituzten. Bakarrik nengoen, berriz ere.

Jadanik bost urte igaro zirenean, bizitzak beste bira bat eman zuen.

Urtarrileko egunik hotzenak pasatzen ari ziren eta elurrak lurra estaltzen zuen einean, ume asko eta asko, gaixotu egiten ginen. Guztiak ginen beldurrez, hotzak gure azal txuria izoztuko zuen beldurrez. Aurreko urteetan, asko erori ziren loaldi amaiezinean, baina urte hartan ez zen horrelakorik gertatuko. Antza zenez, Donostiako udalak, neguko arropak emango zizkigun eta txerto bat jarriko omen ziguten. Guzti horren zain geundela, egunik hotzenean, elur bolada ikaragarria altxatu zen eta izotzak zentroko irteera guztiak zarratu zituen. Gainera jakin genuen, berehala zirela iristekoak medikuak arropa berriekin eta agindutako txertoarekin.

gráficas amorebieta

Nire bizitza une hartan amaitzen zela pentsatu nuen. Egun hura ez zitzaidan inoiz ahaztuko. Gainera, leihotik begiratu eta nire harridurarako, elurraz gainera euria ere ari zuen xirimiri xume baina gogor batekin. Momentu haiek guztiak denok batera pasa genituen, egongela handian. Bertako apaizek esaten zuten, gure arimen beroak kontaktuan jartzean, hotza usatzen ari ginela. Txorradak eta astakeriak aldi berean. Orduak eta orduak igaro ziren eta han geunden umeen erdiak, lurrean etzanda geunden, oso larri, hotzaren besoen artetik ezin ihes egin genuela.

Laster, sarrera nagusiko ateak behera erori ziren eta hainbat pertsona sartu ziren gure bila. Momentu hartan begiak sarratu nituen... Berriz argitasuna ikusi nuenenan, ohe batean etzanda nengoen, zentroko beste ume baten ondoan, hau lotan zegoela. Orduan konturatu nintzen, besoan zerbait arraroa sentitzen nuela eta begiratzean, paperezko tira bat ikusi nuen. Txertoa jarri ziguten dudarik gabe. Oso arraro sentitzen nintzen, berriz mundura itzuliko banintz bezala. Zenbat denbora igaro ote nuen leku hartan? Leihotik begiratzean, eguzki eder batek jotzen zuela konturatu nintzen. Argiarekin, nire gelakidea esnatu nuen, hori pentsatzen dut.

- Eh? Non nago?- esaten zuen marmarka- Nor zara zu?
- Kaixo, Mikel naiz eta ez dakit non gauden egia esan –erantzun nion- gau hotz hartaz baino ez naiz oroitzen eta orain ordea, eguzkiak kiskaltzen nauela sentitzen dut eta... baina, nor zara?
- Martin dut izena, zu zentroko mutil bat al zara?
- Bai ba – esaten hasi nintzen baina atearen hotsak isilarazi ninduen.
- Hara! Esnatu zarete! Azkenean! Hau ospatu egin behar da! Goazen mutilak, goazen udaberriko eguzkiaren apian jolastera.
Udaberria? Nola ba udaberria? Eta zertan aritu ginen neguaren zati handi hartan? Gizon hark hartzatzat hartu ote ginduen?
- Zer esan nahi duzu udaberriaren kontuarekin? –ausartu zen galdetzera Martin.
- Ba, udaberria dela. Baina zuek biok lotan egon zarete denbora guzti honetan, koman alegia. Zuek gogoratzen duzuen azken egunean izan zen hotzaren eraginagatik, zuen gorputzak hilik bezala diardun du denbora guzti honetan, indarrik gabe zegoelako eta gure tratamenduei esker azkenik berreskuratu duzue indarra.

Momentu hori izan zen nire bizitzako gauzarik harrigarriena. Nola izan zitekeen hori posible? Hiru hilabetez amaierarik gabeko bidean aritu nintzen ibiltzen, urrutian argi txuri bat ikusten nuela, hala nola, heriotza. Baina ez! Bidea amaitzen zegoela, konturatu nintzen guzti hori alperrikakoa izan zela eta atera egin nintzen bide ilun hortatik, begiak irekiz. Hori zen nire ikuspegia, egia esan, horrenbeste urtez apaiz artean nengoela, zeozer ikasi beharko nuen, ezta?

- Mikel – esan zidan Martinek nire pentsamenduetan murgildurik nengoela – Mikel!
- Zer?! – erantzun nion bortizki, nahigabe egia esan.
- Barkatu baina, pentsatu al duzu zer egingo duten orain gurekin?
- Ez.
- Ba, berriz ere haur hezkuntza zentrora eramango gaituztela eta nik ez dut itzuli nahi. Jada nagusitxoak gara gu bakarrik moldatzeko.

- Egia.
- Zer deritzozu alde egiten badugu?
- Beno... ba... – ez nekien zer erantzun. Beste bizitza bat hasi beharrak kezkatzen ninduen eta gehiago 13 urteko ume ziztrin batzuk baziren abenturaren protagonistak. Bestalde, nik ere ez nuen gogorik zentrora itzultzeko. Horrela ba... – Ongi da! Goazemazu!

Laster, bigarrengoz, bizitza berri bat hasiko nintzen, jende berriaz, bizimodu berriaz baita, agian latzagoa eta ilunagoa, nola ez, baina aurreko gorabeherak kontuan hartuz ez zen horren gaizki egongo, edo bai...

Geunden gelan bertan, bizpahiru poltsa hartu, arropa eta janariz bete eta aldegin egin genuen. Laster ginen kalean. Norabiderik ezean, guztia zen ezezaguna, baina zerbait egin behar genuen. Horrela ba, ibiltzen hasi ginen. Jakin bagenekien, Donostiatik genbiltzala. Denbora asko igaro zen, eta janaria bukatzen ari zitzaigun. Ahal genuen tokian eta ahal genuen bezala egiten genuen lo.

Egun batean, kale ezezagun batera iritsi ginen eta bertan pertsona batzuk ezagutu genituen. Ijitoak ziren dudarik gabe. Beraien arropa malapartatu haiek “ijito” hitza oihukatzen zuten leku guztietatik. Bakarrik bagenbiltzan galdetu ziguten eta beraiekin geratzeko eskatu ziguten. Martinek onartu zuen eta nik nire dudak nituen arren onartu egin nuen baita ere.

Ijitoekin bizimodua ez zen horren latza izan. Janaria lortzeko arazoak baino ez genituen. Gehienetan, kaleko zaborretatik zerbait aurkitzen genuen eta ez genuenean ezer aurkitzen, supermerkaturen batean lapurtu behar.
Oso bizimodu kaxkarra zen, badakit, baina zer egingo nuen bestela? Kale bazter baten eskatzen gelditu? Zentrora itzuli? Ez. Baina laster izango zen nere begien aurrean alde egiteko arrazoia.

Hemezortzi urteak beteak nituen, eta oraindik ijito nazkagarri haiekin jarraitzen nuen. Ni nintzen guztien artean ezberdina eta askotan bakarrik uzten ninduten, bai ijitoek eta bai Martinek ere. Horrela, gehienetan janaria nire kabuz lortu behar izaten nuen eta ez zen batere erraza. Bitartean beraiek, izugarrizko banketea prestatzen zuten, arrain zatiekin, oilasko hezur erdi-mamitsuekin, ostutako zenbait ardo botila, etab.

Behin, jaten bukatu eta hortik buelta bat ematera joan ziren niri bakarrik utziz betiko moduan. Orduan, beraiek egoten ziren lekura joan eta zertxobait arakatu nuen. Bat-batean, urdailak 180ºko bira bat eman zidan, pastila mordo hura ikustean. Droga zen, ez zegoen dudarik. Mota askotakoak eta aldiz guztiak berdinak, guztiak hilkorrak. Eta Martin zulo hartan sartua zegoela konturatu nintzenean, ez zitzaidan alde egitea beste gauzarik bururatu.

Han utzi nuen dena, eta hanka egin nuen, nora joateko, ez dakit, baina aurkituko nuen zerbait. Edozer madarikatu haiengandik urruntzeko asmoz. Laster aurkitu nuen dexentezko zerbait eta han geratu nintzen.

Biraka eta biraka nenbilen herrian zehar eta egun batean, alde egitea erabaki nuen. Bai, Donostiatik urrunduko nintzen zertxobait, ez asko, baina beno. Hiritik hurbil, menditxo batean

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

eta erreka baten ondoan utzitako txabola bat ikusi eta han geratu nintzen. Janaria, ondoan zegoen baso berdeko fruituak izango ziren eta ura errekatik edango nuen. Nahiko ondo moldatu nintzen lehen hiru hilabeteetan. Baina goiz batean, txabolatxotik irten eta erreka ondoan etzana gorpu bat ikusi nuen. Laster hurbildu nintzen beragana, aurpegia ikusteko eta orduan... Ez! Kaka! Martin zen. Antza zenez, ijito haiek, hil eta errekara botako zuten. Egun guztia negarrez igaro nuen. Nire burua erruduntzat jotzen nuen, Martin bakarrik utzi izanagatik. Eta ia gaua zenean, gorpua lurperatu nuen, txabolan zegoen pala batez lagundurik.

Gertaera hark nigan sortutako beherakada ezin eutsirik, nire burua hiltzea pentsatu nuen, baina ondoren konturatuko nintzen ez zela egin nezakeen gauzarik egokiena. Nire bizitzan ez nintzen horren gaizki sentitu eta berriz Donostiara jaitsi nintzen buelta bat ematera ea ideiak pixkat argitzen zitzaizkidan.

Euria hasi zen ni Donostiara heldu bezain laster. Kaleak zeharkatzen nituen behin da berriz ezer ez lortzeko. Bizitza guztia eman nuen bueltaka behin da berriz zerotik hasiz eta ez nuen ezer lortzen. Zer egin nahi nuen nik bizitza honetan? Ez nuen abiapunturik eta amaierarik ere. Beti nenbilen euriaren azpian jira-biraka pentsatzen eta pentsatzen ezertarako ere. Iluntasuna nagusitu zen jada nere bihotzean eta ez nuen bizitzeko gogo gehiagorik eta atzerago pentsatua burutzeko prest nengoen, nire burua ibaira botazeko plana, alegia.

Horrela bukatzen da ba, nire bizitzaren istorioa. Nazkagarria, iguingarria. Bide guztiak hartu nituen gaizki eta hartzen nituen erabakiak ez ziren batere egokiak. Lehenik, gurasoen kontua izan zen. Haiekin guztiz erratu nintzen. Ondoren, haur zentroa etorriko zen. Egunero berdina egiteaz asperturik nengoen, bai, baina lasterrago edo beranduago handik aterako ninduten eta orduantxe iritsi zen egun hura. Hotzaren eguna, “D” eguna, edota loaldiaren eguna. Azkenik, Martin ezagutu nuen. Harekin igaro nituen egunik onenak. Baina orduantxe agertu ziren, gure bidean, ijitoa haiek eta burmuina zurrupatu ziguten. Horrela, Martin ere galdu nuen. Beste akats bat egin nuen, eta zertarako? Ezertarako ez. Behin da berriz egiten nituen gauzak alferrik. Iluntasunak ez ninduen ni bakarrik itsutzen jada, nire ingurukoak ere pozoitzen zituen eta horregatik, ez egiteko min gehiago inori. Mundutik desagertzea izango zen onena.

Euri tantek nire aurpegia ukitzen dute jada eta momentua iristen ari da. Laster, nirekin dagoen iluntasunak utzi egin beharko nau, argitasuna baitator. Behin amaitu ez nuen bidearen amaiera dator, baina oraingoan ez naiz atzera botako.

gráficas amorebieta

Nerea Bilbao - DBH 4. Maila

“Amets izen berberak dioen bezela, itxaropena ez da inoiz galdu behar”

BIZITZA ALA INFERNUA?

Egun batean Ametsen ama negar malkotan zegoen Ametsen logela garbitzen. Halako batean, leihoaren ondoan Ametsen egunerokoa aurkitu zuen zabalik eta irakurtzen hasi zen bere alabak biziari buruz izandako pentsamenduak nolakoak izan ziren jakinmina zuelako.

Egunerokoa ikusten zegoela, anotazio batzuk harritu egin zuten, bere alaba nola sentitzen zen ikusita gertatutakoa erabat ulertu zuen.

“2003ko abuztuak 27

Kokoteraino nago bizitzaz, hau jasan ezina da, dana bidaliko nuke pikutara baina ezin dut…zer edo zerk lotzen nau bizitzara baina ez dakit zerk. Jakin izan banu bizitzan gauza horregatik bakarrik egingo nukeen borrokan eta beste guztia bazterturik utziko nuke, dena zait berdin momentu honetan.

Beti bezela nire berri txarrak kontatuko dizkizut:

Gaur etxera bueltatu naizenean hondartzatik, aita eta ama egongelan jesarrita zeuden. Neure buruak panorama hura ikusterakoan zer edo zer onik ez dela gertatu jakin du. Hasieran,

gráficas amorebieta

egia esanda, lehengo egunean dendan egindako lapurketaz hitz egingo zidatela pentsatu dut, hau da, betiko kontuak aipatuko zituztela: “Hori ez da egin behar, ez dadila berriro errepikatu…” eta horrelakoak. Baina berri hura entzuterakoan, nire barruan zeuden eskema guztiak apurtu egin dira.

Ez duzu asmatuko: BANANDU egingo dira. Zergatik? Maitaleren bat izango du euretariko batek? Ez dut ezer ulertzen, nahastuta nago erabat.

Eta badakizu zer suposatuko duen horrek? Hemendik aurrera, aita, ama eta ni ez garela biziko etxe berdinean. Esan didatenaren arabera, momentuz amarekin gelditukо naiz eta aita, amona Luisaren etxera joango da.

Gauza batetaz seguru nago: hau guztia nire erruz gertatu dela. Ni naiz familia honetako ardi beltza, ni naiz gaitz guztien errudun, egoera penagarri honen sortzaile. Ni joan behar naiz eta ez aita, baina ez amonaren etxera baizik eta infernura!”

“ 2003ko irailak 12

Nire bizimodua gero eta okerrago doa, aldats behera noa egunero, zulo beltz amaigabe baterantz.

Gero eta gutxiago ateratzen naiz kalera lagunekin, entrenamenduek ez didate ezer gehiago egiteko denborarik uzten. Irteten naizen egunetan baztertuta sentitzen naiz, euren kontuak eta istorioak ez ditut ulertzen hainbat gauza eta parranda galdu ditut gora behera horien ondorioz. Momentu askotan lagunak aldatzeko desioa sentitzen dut, nire ustez, ez naute ulertzen. Euren ikuspuntutik ni leloa naiz hainbeste entrenatzen dudalako eta ez dudalako denbora askorik hartzen astialdirako, baina erratuta daude, momentu honetan kirola baita kontu hauek guztiak ahaztarazten dizkidana.

Beste kontu bat, mutilak dira. Nire lagunak beti daude : «…nire mutil-laguna oso guapoa da eta… » momentu horretan barrutik sutan hasten naiz. Denek mutil-laguna dute eta nik ez, momentu honetan ez baitut baten bat aurkitzeko astirik; gauza horiek ni mintzeko esaten dituztela pentsatzen dut sarritan.

Gorkarekin gauzak ez doaz oso ondo, hobeto esanda txarto doaz. Pasatzen den egun bakoitzeko gehiago atsegin dut: bere irribarrea, bere begiak, bere gorputza…eta ezin diot sentimendu honi aurre egin. Sentimendu gozoa barik, bihotz erditik pasatzen den laban zorrotz baten ziztada dirudi.

Egunero beste neskei buruzko pentsamenduak kontatzen dizkidanean edo berak hainbeste maite duen Olatzi buruz hitz egiten didanean, nahiz eta nik aurpegi ona jarri, aholkuak eman eta aurrera jarraitzeko adorea eman, nire bihotzak guztiz kontrakoa egiteko esaten dit, eta are gehiago, nire bihotza kikilduta sentitzen dut bizitasunik ez baleu bezela.

gráficas amorebieta

Baina ezin diot arazo honi aurpegirik eman. Nire lagunik onena da eta beldur naiz; ez nuke nahi sentitzen dudan guztia azaleratzean gure adiskidetasuna amaitzea. Zaila da, nik beragatik sentitzen dudana, berak nigaitik sentitzen duen sentimendu bera ez delako. Ni ziur nago nire sentimenduez eta bihotza eskuan jarrita, MAITE ZAITUT esateko prest nagoela badakit”

“2003ko urriak 18

Orain hiru hilabete gutxi gorabehera (parkatu lehenago ez kontatzeagatik) gustura entrenatzen nengoan bitartean, entrenatzaileak, nirekin hitz egin nahi zuela esan zidan.

Entrenamendua amaitu zenean beregana hurbildu nintzen eta inoiz espero ez nuena esan zidan: ANFETAMINAK hartu behar nituela, udan izandako lesioaren ondorioz mailaz bajatu nintzela eta ez nintzela lehen bezain kirolari ona. Pilulen laguntzaz lehengo maila berbera lortuko nuela esan zidan. Eta boltsa bete pilula atera zuen niri emateko. Ni harrituta gelditu nintzen, aho zabalik, berak nola jartzen zidan boltsa txikia nire eskuan begiratuz, eta buru hotzarekin, segundu batzuk igaro ondoren ezetz esan nion boltsa itzuli nahian, nik ez nuela ezer hartuko, eta berak tonu mehatxagarri baten pilulak hartzen ez banituen, taldetik bota beharko ninduela esan zidan. Negarrez, etxera joan nintzen.

Ohean botata arazo honetaz pentsatzen nengoela, pilula bat hartzea erabaki nuen, probatzearren. Azkenean pilulekin hasi nintzen eta dana oso ondo joan zait: entrenamenduak, lehiaketak…

Baina azkenengo aste bietan logabezia pairatzen dut, askoz erasokorragoa naiz eta baita apetitu falta nabari dut (jakin ezazu honek hiru gertaerok pilulen kontsumoaren ondorioak direla). Amak pastilei buruz ezer ez dakienez, oso urduri eta larri dabil askoz gutxiago jaten dudalako. Egunero jaten dudanaz kexatzen da, eta niri amorru izugarria ematen dit. Zergaitik arduratu behar da nik jaten dudanaz? Beti esaten du anorexiak jota nagoela eta ospitalean bizitzen gelditukо naizela. Zelako paranoiak!

Ai ene! Pilula hauek zoratu egingo naute! Eta horregatik utzi nahi ditut baina ondorioa gogorra da: kirola uztea. Ez dakit zer egin, burua nahasturik daukat eta momentuz, pilulen gabezia hau hasteko, gelditzen zaidan azkenengoa zakarrontzira botako dut. Badakit gogorra izango dela, orain dela hiru hilabetetik hona nabil pilula honek hartzen erritmo latz batean gainera. Egia esanda, gustuko ditut.”

“ 2003ko azaroak 25

Nire bizitzaren azken berriak kontatuko dizkizut:

Aita eta ama ofizialki bananduta daude. Egin duten akordioaren arabera urte bete batekin egongo naiz eta hurrengoan bestearekin, horrela, nik hamazortzi urte bete arte. Gero nik erabakiko dut norekin gelditu. Zer nolako egoera penagarria!

Gorkari, bera dela maite dudan mutil bakarra esan diot eta berak asko sentitzen duela esanez, lagun moduan ikusten nauela aitortu dit, horrez gain Olatzekin aterako dela gehituz!

gráficas amorebieta

Eta hori ez da okerrena! Orain ikusten dudan bakoitzean ez dit kasurik egiten eta nik ezin dut jasan, bere begiradak bihotza apurtzen dit.

Nire zoritxarrerako ezin izan ditut pilulak utzi, eta kontsumoaren ondorioak gero eta nabarmenagoak dira, gero eta argalagoa naiz, ez dut lorik egiten eta mundu guztiarekin oso zakarra naiz. Ezin dut horrela jarraitu! Drogazale bihurtu naiz! Eta gainera hau guztia gutxi bada, entrenatzaileak esan dit pilulak utzi behar ditudala bestela kirola utzi beharko dudala. Nola liteke posible? Bera izan zen mundu zikin honetan sartu ninduena. Ziztrin halakoa!

Hau nire agurra da; nahiz eta nire izenak itxaropena adierazi era batean, momento honetan nik sentitzen ez dudan sentimendu bakarra hori da.

Zuek ni ikusi ez arren, ni munduan eta zuen artean presente egongo naiz beti...

Nik beti maite izan zaituztet nahiz eta ez jakin hori adierazten, baina bizitza hondatuaz gain, zailegia jarri dit gizarte honek.

Beti eramango dut infernu hau nire bihotzean, barruan sugarrei ihes eginez, zuek gehien maite duzuena ez kentzeko; bizitza.

Orain hemen nago nire logelako leihoan, nire bizitza eta heriotzaren arteko mugan. Eta hor, oso hurbil ikusten dut denek apaitzen duten tunel beltza eta argi dizdiratsua…”

Pablo Martínez Juarez - DBH. 4. Maila

“Iluntasunak ez nau beldurtzen”.

GAU BATEAN...

Ez dakit nola hasi ... istorio nahiko arraroa da eta. Orain dela aste ... ez hilabete ... edo ... gertatu zaidana, nire bizitza, beharbada, aldatuko duen gauaren kontakizuna da eta ez dakit nola hasi. “ Poliziaren sirenak entzuten ...” ez, baina ... nola hasiko dut ba hasieratik baino! “Gau leuna, oso hezea zen hura. Iluntzeko, oso iluntzeko, bederatziak laurden edo bostak gutxiago izango ziren, ez dakit, beharbada bederatziak jota. Barka nazazue, baina orain egun haiek oso ilun eta urrun ikusten ditut. Alde zaharreko kale estu eta hutsa zen, lurra bustia, irristakorra, eta bat-batean ezerezetik pertsona baten itxura zuen izaki bat agertu zen, eta nire gainera erori; gizakia zen, oraingoan ea seguru nengoen etilikoz bekainetaraino josita zegoen gizona, eta ihes egin zuen “ fiti “ batzuk eskatu ondoren. Ikara oraindik nuela berriz ibiltzen hasi nintzen; etxeranzko bidaia inoiz baino luzeagoa izango zela pentsatu nuen, inoiz baino luzeagoa. Berriz gelditu nintzen, nire atzetik pauso batzuk entzun nituen, edo, nire pausoen erreberberazio hutsa ziren?. Ikara, beldur bihurtzeko prest zegoenean, begiak itxi nituen, sakon arnastu, eta berriz hasi ziren; nire albotik pasatzerakoan ergel baten antzera geratu nintzen berari begira. Haren buruak “El exorcista”-ren neska gogorarazi zidan, baina errealitatera itzuli nintzen eta aurrera begiratu nuen. Azkenean, kale horretatik irteten nengoela oihu bat entzun nuen; nire atzetik zetozen. Beldurrezkok filme gutxi ikusi dudala uste dut, buelta eman nuelako eta oihuaren jatorriraino korrika hasi nintzelako. Oihua, beste alboko beste kale batetik zetorren; hara hurbildu nintzen. Han ikusi nuena orain ezin dut deskribatu;

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

hain zen nazkagarria irudi hura, nire burua instante batean endredatu zuela, eta orain nire historiako beste zulo bat, hutsune bat da. Beraz, bakarrik esan dezaket, bera zela, aurreko neska hura, hilotsik. Atzera egin nuen ok egiteko gogoekin baina horren ordez, izerdi hotz batek inguratu ninduen, lepotik, eta lurrera jausi nintzen; horretaz bai oroitzen naizela.

Kaletik zehar dariola zegoen odolaren gainean arma bat zegoen, laburregia ezpata bat izateko eta luzeegia aizto arrunt bat izateko. Eta kaletik irteten pertsona baten itzala izan zitekeena, itxuraz, ahotsez. “Har ezazu hori” esan zidan, eta eskuan zeraman armaz jabetzerakoan bere asmoaren berri izan nuen. Erasotzeko prest zegoela ikusi nuen, baina erlaxatu eta buelta eman zuen. “Gaur ez zaitut hil nahi”. Oraingoan bai nengoela guztiz galduta. “Zer da nahi duzuna, orduan? Etorri hona eta hil nazazu, ezta? Lekuko hau erditik ken ezazu! borrokatu!” Nahiz eta hori esan, ez nuen borrokatzeko gogorik eta are gutxiago hiltzeko. Azkenean iluntasunean desagertu zen nire oihuei jaramonik egin gabe. Izututa nengoen. Poliziaren sirenak entzuten hasi nintzen. Horrek, aurkitzen nintzeneko egoeraren larritasunaz jabetzeko balio izan zidan: odolez betetako arma batekin, eta inportanteena, nire atzamar markak zituen arma batekin nengoen gorpu baten ondoan! Ez nuen argitasun handiegirik behar egoeraren larritasunaz konturatzeko; labana ezkutatu nuen. Atzetik jarraitu nion, berak egin zuen bide berbera egin nuen. Beste oihu bat. Hiltzailearen atzetik nenbilen? Ez, noski, ez ...edo ... bai? Nor zen? Zerk bultzatzen zuen heriotzetara? Hiltzen jarraituko ote zuen? Horrelako galderez betea, ezin gehiagoan nuen burua. Eta nire gorputzak oihuak egindako bidea jarraitu zuen. Labana, “klinex” baten laguntzaz garbitu nuen, baina berandu zen: ezkutatzerakoan, arropa guztiak zikindu nituen. Odolez beteta nengoen. Labana garbi baina ni ... Heldu nintzenean han zegoen hura, eszena hartatik begiak apartatzea lortu nuen, ez nengoen jada dardarka, baina bere begiak ikusterakoan ... izoztuta

geratu nintzen, mugitu ezinik; haren kolpe bat jaso nuen. Iratzartu nintzenean oraintxe nagoen leku berberean nengoela segurta dezaket; espetxe ilun honen kobazulo berberean. Beno, lehenago ospitale eta epaitegi batzuetatik ibilia naizela uste dut, baina horiek ametz gaiztotzat ditudanez ... azken oroitzapenak kartzela honetara nakarte. Eta nire pasadizoa han bukatu zen. Gartzelaren errutinean, beti egun berean bizi naiz, goiza , eguerdia eta gaua behin eta berriro errepikatzen, eta gogaitzen ... filme amaitu ezina bailitzan. Baina inoiz inork hau irakurtzen badu, oraindik hilda ez nagoelako edo beharbada ihes egina naizelako izango da. Emandako bigarren aukera baldin bada, zera argitu beharko dut: bere atzetik joan nintzela, bere bila, ez bera hondatzekotan, bera, hiltzailea, ez dakit ... ez berak burututako lanagatik ..ez, ... ez dakit. Krudela badirudi ere, berarekin edo beraiekin... bizi nahiak bultzatuta. Ez da bizi izan ditudan azken hiru urte hauengandik, beno, batzuetan bai, ... baina ez da benetako arrazoia. Uste dut neure arazo pertsonala bihurtu dela. Bere begiak, benetan psikopata batenak ziren?... Ez dakit.

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

Amaia Quintana - DBH. 4. Maila

"Itsasoko olatuak handiak dira murgildu nahi dutenentzat.
Gure herriko lanak handiak dira, oinaze dira, bortitz dira, zatiturik gaudenentzat!"

LARA

SHARIMA

Sekula ez nituen gurasoak ezagutu.

Txikitatik umezurtza nintzela ohartarazi ninduen amonak. Alderantziz ene barneko mintzo batek adierazten zidan, nire gurasoak, ama batez ere, bizirik zegoela nonbait. Amona Jinefekin bizi nintzen etxe txiki, baina eder batean. Horrela bizi ginen herritar gehienak. Batzuk besteak baino bizi baldintza hobeagoak zituzten; herrialde gehienetan gertatzen den legetxe. Jinef ama bat bezalakoa zen eta batere beldurrik izan gabe "ama" deitzen nion.

Nire bizitza hotza zen oso. Sentimendurik gabea. Amonaren afektu

eta besarkadak soilik nituen. Inork ez zidan maite. Inortxok ere ez. Batzutan nire burua zigortzen nuen koldarra nintzelako. Edo besteek oilobusti bat nintzela pentsarazten nindutelako. Azkenik, ene burua gaztigatzen bukatzen nuen. Arazo bat neukan, arazo larria gainera. Lagunek edota lagun tankera hartzen zuten pertsonek, bihotza izotzez eginikoa nuela esaten zidaten. Farre egiten zidaten, inoiz izeka ere. Amonarekin mingaina astintzetik lortzen nuen lasaitasun eta babes hura oso bestelakoa bilakatzen zen lagunen hitzak aditzerakoan. Besteek ez zuten kupidarik. Ahotik irteten zitzaizkien lehen berbak jaurtitzen zituzten. Beldurrik gabe. Egin ahal zuten minaz, ohartarazi gabe. Hura ez zen bizitzeko bide zuzena. Horrela ez zegoen bizitzerik.

Herrialde hartatik ospa egin nahi nuen. Edo behintzat, hori egiteko gogo izugarria neukan. Atlasean begiratzen nuen, Jinefek oparitutako atlasean eta mundua ezagutzeko irrika berezi samar batek gorputza astintzen ninduen, batez ere hiriak. Hanketako behatzetatik hasi eta buruan dagoen azken ilepuntarainoko sentsazio erraldoia zen. Nahia, desioa eta sena guztiak nahasturik sortzen zuten sentimendu sendoa zen hura. Egunen baten, maleta hartu eta lurralde hartatik at joango nintzela imajinatzen nuen. Hiriko txokoren batetan, bertan, ama topatzeko esperantza neukan. Banekien bera ikusteak on egingo zidala, baina nere sakrifizioak hutsaren pareko suertatzen ziren. Ez nekien non bizi zen. Nor zen. Ez nekien nolakoa zen, baina agintzen dizuet, ezagutu izan zutenek, hain zuzen amonak, ederra, oso ederra, liraina, herriko neskatxa guztien artean lirainena eta biziki xarmangarria zela ziurtatzen zuela. Ez nekien aita nor zen. Arrastorik ere ez. Filmeetan agertzen diren lapur fugitibo horien antza zeukan aitak. Gutxienez noizbait Jinefi, kostata baina ateratzen nizkion amari buruzko datuak baina aita... Aita ez zuen inoiz ezagutzeko betarik izan. Berari buruz ez neukan arrastorik, kutsu txikiena ere ez. Saiatu, beti saiatu izan nintzen; baina aurkitu, aurkitu ezer gutxi.

Nire burutazioen arabera, amak denboraldi baterako etxetik alde egin zuen eta bertan, bidaia fantasioso hartan aita ezagutu eta gertatu beharrekoa gertatu zen. Hasiera batean dena polita izango zen baina gero... gero gerokoak etortzen ziren eta aitak ama laga zuela uste nuen. Ondoren amak ez zuen jakingo zer egin, nora jo, eta azkenik etxera berriz itzuliko zen burumakur, egin zuen astakeriagatik damututa. Azken finean, hauek ziren nire asmazioen erasanak.

Egia osoa aitortzen badizuet, aita aurkitzeko inolako itxaropenik ez nuen. Edota agian ez nuen nahi. Beldurra neukan. Bai, hori zen aitarekiko nuen sentimenduaren jabea, beldurra. Azken batean, normala zen. Bizi osoa ez bata ezta bestea nor zen jakin gabe egoteak, izua sortarazten zidan, pertsona haiek ezezagunak baitziren niretzako. Baina ama, ama banekien aurkituko nuela. Halako egunen baten nire ondoan izango nuela, nire kezkak azalduko nizkiola eta berak gogoz entzungo zituela amesten nuen. Aitari buruz mintzatuko zen eta biok batera bizitzari gogor eutsiko genion. Arazoak guretzako huskeriak bihurtuko ziren eta une hartan, garrantzizkoena elkarrekin egotea litzateke. Familia arrunt bat izango ginela eta gure artean batzuetan liskarrak ageriko zirela imajinatzen nuen. Baina zoritxarrez, ideia hauek guztiak, hipotesi hutsak ziren.

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

Nire buruan izugarrizko nahaspiloa zegoen. Ideia hauek oheratzean etortzen zitzaizkidan eta lo sakona hartzen nuen hauekin batera. Jinefek irribarrea ageri zitzaidala lo nengoenean esaten zidan eta biziro gustura sentiarazten zen bere iloba horrela, zoriontsu ikustean. Bai, agian arrazoi osoa zeukan, lo nengoenean zoriontsu nintzen, ametsetan murgilduta, ideia zoragarrietan pentsatzen, dena ederra zen oso. Baina ohetik jaikitzen nintzenean dena errealitatera bueltatzen zen eta ideiek 180ºtako bira erradikala ematen zuten.

Jinefek taberna bat zeukan, nire gusturako kakanarru samarra zen baina aldi berean dotore eta azken deitailea ere zaintzen zuen dekorazioa zeramana. Herriak zeukan taberna bakarra zen eta egia esan supermerkatu bezala ere funtzionatzen zuen. Erdi supermerkatu taberna horrek, lokalaren ezkerraldea hartzen zuen eta nahiz eta ez arras handia izan, denetarik zeukan. Jakiak, arropak, jostailuak...Eta justu ezkerraldeko atzekaldean, nire txoko kuttuna: liburudenda. Bertan sabaitik zintzilikaturik bonbila bat zegoen eta behean besaulki bat, antigoalekoa, baina hagitz komodoa. Arratsaldeak zituen orduak eta orduak bertan pasatzen nituen, maiteen nuen liburua leitzen: aurretiaz aipatutako atlasa. Honi begira eta bertan agertzen ziren herrialde ezezagunekin amesten nengoela gutxi pairatzen nuen, eta lagunen txutxu-mutxuetatik hanka egitea lortzen nuen, bakardadean babesturik; ni eta nire atlasa, munduko lagunik onenak bilakatuz. Herria txikia zenez xuxurlak biziki azkar zabaltzeko gaitasuna zeukaten, eta horregatik gorroto nuen herria. Bestalde bazeukan maite nuen beste zerbait: lasaitasun oparoa.

Oraindik ere, gaur bertan izango balitz bezala gogoratzen dut nola heldu zen atlasa nire eskuetara. Klaseko egun bat zen eta arratsalde aldera, nire lagunekin solasean gelditu ordez, Jinefen tabernara hurrandu nintzen ohikoa zen legez. Zubi printzipaletik igaro nintzenean amonaren enkarguen kamioia ikusi nuen. Haren atzetik abiatzen zen jendea, hark zer eta norentzat ote zekarren jakin nahirik. Amonaren tabernaren aurrean pausatu zen eta horrek amonak zerbait moderno eta apartekoa enkargatu zuela adierazten zuen. Bapatean kamioilariak, kamioiko atzealdea ireki eta eskuen artean liburu bat, koloreetan zena zekarren eta denek harri eta zur begiratzen zioten liburuari; inbidia aurpegiz. Azken finean, herria zen eta liburu hura herriko azken nobedadea; nork eduki eta amona Jinefek, beti bezala. Hura eskuratu nahi zuenak ordaindu egin beharko zuen, asko gainera, eta nahiz eta herriko jende aberatsena erosten saiatu, amonak atlas hura niri oparitu zidan jende guziaren aurrean. Harro sartu nintzen tabernako supermerkatu partera, hura pribilegioa nirea! Estreinakoz izan nuen liburu hura aurrez aurre. Handik aurrera atlasari Mundi deitu nion, amonak esan bait zidan izen polita zela eta berarekin jostatzen eta solasten nintzen une oro. Bai, entzun duzuen bezalaxe, solasaldi luzeak egiten nituen Mundirekin, eta nahiago harekin egon lagunekin baino.

Hemezortzi urte bete nituenean, ezkontzeko agindua iritsi zitzaidan. Hatrik deituriko gizon batekin burutu behar nuen. Hura, putzontzi hutsa izateaz gain, diruduna ere zen eta nigan bilatzen zuen gauza bakarra, bere pentzura biziko zen eta bere plazerrak burutuko zituen emakume bat zen. Txikitatik ezagutzen ginen eta ez zitzaidan batere mutil erakargarria iruditzen eta hori baino gehiago, inoiz ez nuen berarenganako kitzikapenik sentitu.

gráficas amorebieta

Jinefek eta Hatriken gurasoek, ezkontzeko patua guk bortz urte baino ez genituenean izenpetu zuten. Haiek hitzarmen hori egiterakoan ez zituzten kontutan hartu gure irizpideak , noski, ia ez genekien hitz egiten ere , baina luzaroago itxaron zezaketen erabaki bat hartu aurretik. Ematen zuen, erabakia hotzean hartu zutela, beraiei komeni zitzaizkien aspektuetan bakarrik begiemanez eta maitasun elea alderatuz. Bidegabekoa iruditzen zitzaidan ideia hori eta momentu hartan buruan neukan kezka bakarra amarekin bat egitea zen. Hatrik ez nuen maite eta ez nuen inoiz maiteko, ezkontza hura errakuntza bat zen.

Hilabete batzuetara Hatrikekin bizitzera behartu ninduten eta ezkontzekoak ginenez dena antolatu behar genuen. Egia esan, gizona dezente ongi jokatzen hari zen nirekin, printzesa bat bezala tratatzen ninduen. Gauetan masajetxoak, musuak, laztanak...egiten zizkidan baina ni, ni oso hotz portatzen nintzen berarekin. Haren maitasun zeinu guziek nazka ematen zidaten. Bere behatzek nire gorputza ukitzean sentsazio higuingarriak izaten nituen eta tarteka kontrolatu ezinik , aitzakia baten bitartez etxeko bertze txoko batera joan eta leku-lekuan iragaten nuen gaua, bakardadean murgildurik, txikitan legez. Latza zen egoera eta akaso egunen baten guztiz erotuta bukatuko nuen beldur nintzen. Ez nekien maitatzen, inoiz ez nintzelako maitatua izan.

Berari azaldu nahi izaten nizkion nire kezkak eta buruhausteak. Alderantziz, barneko mintzoak ez zidan uzten. Nire bizitzari buruzko arazoak kontatzeko erraten zidan baina nik, nik ezin nuen. Ordurarte Jinefi edota Mundiri bakarrik azaldu izan nizkien nire goganbeharrak eta orain ezin nuen horrela, egun batetik bestera guztia aldatu. Saiatu, saiatzen nintzen baina lortu, lortu ezer gutxi.

Hatrikekin bizitzen jarri eta oso denbora gutxira amonari bihotzekoak eman eta betiko loak egin zion. Instant hartan, ez zeru eta ez lur gelditu nintzen. Mundi bakarrik geratzen zitzaidan, beno, eta Hatrik ere, baina desberdina zen. Ez nuen senitaterkorik eta mundua aurrez aurre neukan eta ni erdian, bertan, inor gabe, bakar bakarrik berriz ere; bakardade osoan murgildurik, txikitan legez. Penagarria zen nire egoera, ematen zuen madakarikazioren bat jaurti zidala norbaitek, baina horren aurrean ere zerbait gehiago ageri zen, nik ez nuen ezer txarrik egin, beraz, nire egoera ulertezin bilakatzen zen.

Jinefen arimak egin eta gutxira bere taberna-supermerkatua zegoen edifizioa botatzeko pregoia jaurti zuen alkate jaunak. Beste zartako gogor bat nere bizitzan, beste bat gehiago ordurarte egina neukan bildumarako! Edifizioa guztiz bota baino lehenago bertara hurratu eta galasota egon arren, barrura sartu nintzen. Betiko txokoan eseri nintzen. Leku hark milaka oroitzapen ekartzen zizkidan, batzuk eztizkoak eta besteak arras gaziak; amonarekin noizbehinka izaten nituen ika-mikak, bertan zigortuta lagatzen nindueneko negarraldiak, amari buruz kontatutako istorio hunkigarriak... Bapateko burrunbada batek iratzarri ninduen oroitzapenetatik eta orduantxe konturatu nintzen edifizio hura botatzeko zirela eta bertatik ihes egitea hobe nuela. Mundi eskuetan hartu eta nire harridurarako lurrean argazki bat aurkitu nuen, hormetatik ateratakoa eta une berean konturatu nintzen amona eta ama zirela.

gráficas amorebieta

Hura bai emakume ederra, amonak arrazoi osoa zeukan, sekula ikusi izan nuen emakume lirainena eta dotoreena zen. Oraindik are gehiago piztu zen nire barrenean hura ezagutzeko nahia.

Etxera joan, Hatrikeri gutun bat utzi eta ospa egin nuen, garai batetan amestu izan nuen bezala. Mundi esku artean hartu, argazkia barruan lekedaz itsatsi eta autobus geltokira hurreratu nintzen.

MUNDI

Sekula ez nuen hiria ezagutu.

Sharimak eraman ninduen arte. Ilunsentian iritsi ginen. Autobus geltokia iluna zen oso. Tunel mehatxagarri baten tankerakoa. Irterarik gabeko zulo beltza. Sharimak barre egin zuen estreinakoz. Inoiz ez nuen hain zoriontsu somatu neska hura. Maleta, gurpildun gurdiaren maletegian jarri zuen; kontu handiarekin eta gu goian eseri ginen, patxadaz. Sharima beldurtia zen eta izterrek dar-dar egiten zioten beldurraren pisuari eutsi ezinik.

Bapatean autobusa gelditu eta gu biok behera jaitsi ginen. Milaka argi piztuta zeuden. Zerua ematen zuen hiriak. Eta izarrak, argitxoek. Autoak. Bozinak eta jendea. Jende uholdea. Dendak non nahi. Tabernak gune guzietan. Telebistan hiria etzen hain interesgarri ikusten. Hura zen “Show”a. Kamioi batek bozina jo zuen eta gidariak “Guapa” oihukatu zuen. Sharimari esan zioten guapa. Egia esan, atentzioa deitzen zuen emakumea zen. Nora joan eta bertan mutil guztiak begira geratu. Hura neska horrek zeukan zortea! Beste emakumeek inbidia gordina zioten; Jinefi garai batean izan zioten bezalaxe. Apustu egingo nuke, modeloa edota telebistako aurkezle izateko aukera zuela. Modelo, artista, berak etzekien horiek bazirenik ere.

Argazkia goitik behera arakatu ondoren atzean zerbait idatzirik zegoela konturatu zen: “Matxet Kalea 18” “Lara” “1988”.

Datu horiek oso baliatsuak ziren. Sharima orduantxe jabetu zen argazki hura bera jaio zen egun berekoa zela. Ama. Lara. Pertsona bera. Matxet 18 kalekoa. Hiri artakoa. Hura zortea! Ezin zitzaion eskuetatik aldendu. Dena lotuta zeukan. Hainbat sufrikarioren ondoren betiereko zoriontasuna lortu beharra zeukan. Merezi zuen eta.

Beren ingurutik igaro zen emakume apain bati, argazkia eta atzekaldekoa erakutsi zizkion baina emakumeak buelta erdi eman eta hanka egin zuen. Hura edukazioa! Horra hor, hiriak ezkutatzen zuena. Alde beltza. Jende aniztasuna. Beste gizon batekin saiatu zen baina honek

gráficas amorebieta

ere bi hitz egin ondoren ezer ez zekiela eta joan egin behar zuela erran zion. Sharima ia etsita zegoen baina azkenekoz, mutil prestu bati galdegin eta hark bai, kalea ezagutzen zuela eta baita emakumea ere erran zion. Gura bazuen laguntzeko ere eskeini zen eta Sharimak baiezko borobila eman zion, erdi desbideratuta baitzebilen.

Kalea urruti zegoen. Arras urrun. Hiria handia zen oso. Bide luze hark, hainbertze gauzen artean, bata bestearekin hobeto ezagutzeko balio izan zien. Sharimak lagun bat aurkitu zuela nabari zuen. Zinezko lagun bat. Gainera, amaren ezaguna. Etzegoen gaizki!

LARA

Sekula ez nuen horrelako sentsaziorik izan.

Nik ez nuen negar egin nahi. Momentua bizi nahi nuen. Sharimaren begiak aitarenak bezalakoak ziren. Berde-urdinak. Ilea ordea, nirea bezalakoa zeukan. Errubioa. Garbia. Asko hazi zen azkenekoz ikusi nuenetik. Jinefek bidaltzen zidan postaz informazioa. Besarkatu nahi nuen. Baina koldarra nintzen oso. Alaba bezalakoa.

Hemezortzi urte nituela, herritik alde egin nuen. Maleta bat eta kolore gabeko “Mapamundi” bat eskuan neramala soilik joan nintzen hirira, amaren bila. Maparen atzekaldean amaren datu apur batzuk nituen, aitarena ordea ezer ere ez. Nire senarrarengandik ihesi nihoan eta nire ama ezagutu eta besarkatu nahi nuen. Ez nuen nire senarra maite, amonak batu gintuen diru kontuak zirela medio eta ni zoriontsu izateko asmoz. Baina ez, haiek ez zuten maitasun elea ezagutzen. Egin nuen bidaia fantasioso hartan Sharimaren aita ezagutu nuen. Hasiera batean dena polita zen, erromantikoa baina gero...gero haurdun geratu nintzen. Sharimaren aitak filmetan agertzen diren lapur fugitibo horien antzera hanka egin zuen. Ondoren zer egin eta nora jo ez nekiela, etxera itzuli nintzen, berriz, nire senarraren ondora, egin nuen astakeriagatik damututa.

Alaba aurrez aurre daukat. “Dena azaldu behar ote diot?”

Kaixo laztana, ongi etorri!

gráficas amorebieta